

Euskararen historiaurrearen berreraiketa sakonagorako: forma kanonikoa, tipologia holistikoa, kronologia eta gramatikalizazioa*

Joseba A. Lakarra
UPV/EHU

1. Aitzineuskararen berreraiketa estandarraz eta hori aldatu beharraz

1.1. Euskarak ahaide ezagunik ez izanik, bere historia egiteko biderik ohi-koena —hizkuntzen arteko erkaketa (cf. Meillet 1925)— antzu eta agor dugula aspalditik da ezagun. Gertakari honek ez du ezinezko bilakatzen historiari jardutea, inoiz esan izan den bezala, baina bai eskatzen du gainerako hurbilketak ahalik eta gehien lantzea eta fintzea (ikus Mitxelena 1963, Haas 1969, Watkins 1990, Campbell 2011, Lakarra 2011b). Gainerako hurbilketa haue-tarik edozein hizkuntzatan emankorra lirudikeen barne-berreraiketa atzera-tua izan da euskalaritzan, bai horretarako beharrezko zen filologia aurrelana ez delako garatu berandu arte eta baita barne-berreraiketak oinarri duen teoria linguistikoa aitzinamendua oso mugatua izan delako ere gure artean.¹

Ezagun denez, Martinetek 1950ean argitaratu zuen artikulu berritzaile bat, latinaurreko euskararen herskariaren inguruan. Berehalakoan Mitxelenak (1951) artikulu hori euskaltzaleei azaldu eta haren oinarriak sendotu zituen,

* Espainiako Ministeritzako “Monumenta Linguae Vasconum (IV): Textos Arcaicos Vascos y Euskera Antiguo” (FFI2012-37696), Eusko Jaurlaritzako “Historia de la Lengua Vasca y Lingüística Histórico-Comparada” (GIC. IT698-13) ikerketa egitasmoetan eta UPV/EHUko UFI 11/14aren barnean kokatzen da honako lan hau. Borja Ariztimuñori zor dizkiot azkenau-rrerako bertsio bati egindako zuzenketak, eta Ricardo Gómezi egin duen editore-lan bikaina.

¹ Halere, AE-ren egituran, fonologia diakronikoan edo hizkuntzaren bilakabidearen gaine-rako alderdietan izandako aurkikuntza zehatzak eta erdietsitako emaitzak atzendu ez gutxietsi gabe, ez dira ahaztekoak Touratier-en (1990; cf. § 1.3) edo Campbell-en (2011 eta 2013 [1998]) iruzkinak. Campbellek Mitxelenaz geroztik egindako euskararen berreraiketa saioak hizkuntza isolatuekin gara litezkeen ikerketen eredu gisa jartzen ditu, berreraiketa-teoria (orokorrari) da-gozkion aitzinamendu legez.

Lan hau inprimategian zen bitartean joan zaigun Calvert Watkinsek ere neogramatikoe-tarik garatuaz zetorren metodoa modurik egokienean ezartzeaz landa —berak zein Mitxele-nak maisutzat zuten Benvenistek lehenago bezala—, beti jardun zuen aldaketa linguistikoa-ren azalpen hobea eman zezakeen teoriaren bila.

Martinetek erabili ez zituen hiru argudio motaren bitartez: a) herskari geminatuen lekukotasuna; b) [f]-arena, eta c) Akitaniako eta Erdi Aroko hainbat grafiarena.² Horrezaz landa, lan horretan bertan eta 50eko hamarkadako beste hainbatetan, Mitxelenak Martineten herskarien eredia zabaldu zuen ozen eta txistukarietan, erakutsi ondoren batzuen eta besteen neutralizazio-gune eta neutralizazio-moduen berdintasuna. Horrenbestez, (1)-eko sistema ezaguna berreraiki zen Mitxelena (1957)-n eta *FHV*n:

- (1) AEM-ren sistema fonologikoa (Mitxelena 1957)
 bortitzak () T C Ć K N L R
 ahulak p t s ś k n l r (gehi *h*, 5 V, 5 D)

1.2. Berreraiketa eredu hau izan da eta oraindik ere bera da, funtsean, modu estandarra azken 2000 edo 2500 urteetako euskararen bilakabidea eta AEren egitura deskribatzeko erabiltzen duguna. Urte hauetan ehunka etimologia berri eman ditu eta baita lehenagoko asko suntsitu edo hobetu ere —1.400 edo 1.500 bai, nolahi ere, cf. Arbelaiz (1978) eta orain Michelena (2011-2012: XV. lib.)—, orain arte bere azalpen boterea agortu ez delarik. Bestalde, Lakarra (2008a)-n erakutsi nuenez, Trask (1985) eta Hualde (1997)-k ez dute benetako alternatiba suposatzen, bai soilik herskarietz dihardutelako, bai erabilitako datu desegokiengatik eta baita, azkenik, etimologia/berreraiketa berri bat ere ez ekartzeagatik (ikus § 2.2).

1.3. Touratier-ek dioen bezala (1990: 29), Martineten zein Mitxelenaren hurbilketa barne-berreraiketaren adibide garden dira, izan ere ez orduan ez orain ez baitugu erdietsi ahaide-erkagairik euskararentzat.

Martinetek eta Mitxelenak mailegaketa ikerketen —ez horren tamaina, egokitasun, behar edo estetikari buruzko gogoeta eta eztabaiden— berebiziko garrantzia agertu dute hizkuntza historialariarentzat: lehenago sarritan inperio betierekoaren eta kultura garaitezinen isla edo hondar gisa hartzen ziren bitartean, geroztik maileguak eta beren ikerketa hizkuntza hartzailearen historia argitzeko duten aukeraren arabera baliatu izan dira. Izan ere, gutxi edo asko (usuenik gutxi) edozein hizkuntzaren historia ikertzeko edo haren berreraiketa osatzeko baliagarri da mailegaketa, baina seguruenik latinetik edo erromantzetik euskarak hartutakoaren azterketaren emaitzak parekorik ez bide du: munduan hizkuntza gutxi du latinaren edo erromantzeen egitura —fonologiatik has eta lexikora, gramatika barrena—, nahiz horren historia baino ezagunagorik eta, bistakoa da, —mailegatuaren bitartez ezagutza horren isla apalena euskararen ondare zaharraren ikerketan erabilgarri bihur litekeen neurrian—, honen historiaren ezagutzak aitzinamendu larria izan zezakeela. Horregatik beragatik AE-ren ikerketa estandarrekiko hurbilketa ohituraz “barne-berreraiketaz” garatu dela esan arren, ez genuke akats bar-

² Nolanahi ere, orain (cf. Hualde 1997 eta Lakarra 2011b) [f]-aren ganean oinarritutako argudioa berrikusi beharra dago, kronologia AEtik urruti sortua dela baitirudi.

kaezinik egingo berreraiketa hori “mistotzat” joko bagenu: ondare zaharrekoarekin batera eta horren azterketarako oinarri eta eredu neurri handi batean beste hizkuntza bat(zu)ekiko erkaketa ez-genetikoak jarri baitu (cf. Lakarra 1997b, 2012d).³

Mitxelenaren berreraiketa eta hurbilketa aldatzeko —eta osatzea eta zabaltea ere aldatetatzat hartzen ditut— ondoko arrazoiak izan daitezke: a) Ia soilik fonologiari dagokio; b) kronologia zehatzik ez du; c) EBZ garatu gabe gelditu zen eta horren garapenak ondorioak bide dituzke AEMren berreraiketetan (cf. Lakarra 2012a eta hemen § 5); azkenik, d) Mitxelenak ez zituen datu eta lanabesak izan ditzakegu AEMren historiaurrerantz —hau da, AEZ-rantz— jotzeko (ikus Lakarra 2011a, 2011b).

2. Paradigma berriaren oinarriak: I. Forma kanonikoa

2.1. Forma kanonikoaz eta morfologiaz

Arbelaiz (1978) eta orain Mitxelenaren Obra Guztietako (2011) azken liburuko hitzen aurkibideak hartzen baditugu, horien etimologigintzan hainbat kontraesan edo polimorfismo dugu: hots, monosilaboak, bisilaboak eta polisilaboak, bokalez nahiz kontsonantez hasiak edo/eta amaituak, kontsonante taldeak nahiz hiatoak hitz barnean... ia erabatekoa da morfemen (eta berreraikitzailearen) askatasuna AERanzko jatorrizko formak proposatzerakoan. Hainbat aldiz azaldu dudanez (cf. Lakarra 1995, 1998, etab.), antzekoa gertatzen zen 1942ko Uhlenbecken euskal hitz-sailen aurkezpenean.

Benvenistek 1935ean gisa horretako hurbilketak salatu zituen garaiko ino-europeisten artean eta IErentzat anabasa horretan sistema bilatzea jartzen zuen helburu. Forma Kanonikoaren ikerketak aurrerapen handiak ekarri ditu IEren, semitikoaren, uralikoaren, austronesioaren edo sinitikoaren bilakabidearen ezagutzan (cf. Lakarra 1998 eta 2011a-ko bibliografia) eta, *mutatis mutandis*, hori zen AErentzat lehendabizikoz Lakarra (1995)-en proposatzen zen iker-bidea. Ikusirik, gainera, zenbait erro-hertsapen (**TVTV, **VC, **CV), AEZrako CVC erro-eredu monosilaboa aldarrikatu nuen. Lan hartan eta ondoko urteetakoetan (Lakarra 1998, 2002a, 2008a, etab.) lortutako emaitzak eredu horren alde mintzo ziren:

—dagoeneko, hasieratik bertatik, hainbat aurrerapen zen lexikoaren analisisian, euskal lexikoi osoa aztertze oraindik urruti izan arren:

1. erro berriak lortu genituen, artean ezezagunak (*han, *ger, *bur, etab.) edo,

³ Mitxelenak (1964) euskara eta albanieraren arteko erkaketa egin litekeela iradokitzen du, batak eta besteak latinetik hartutako mailegu ugarien gainean, jakina. Ikus § 4 eta horko 21. oharra.

2. lehendik ezagututako erro zenbaiten familiak zabaldu genituen: **bel* (*ubel, orbel...* → *sabel, gibel, etab.*)
3. mailegu berriak ezagutu genituen: *sorbalda* < *soin-malda*; *hezur* < **enazur* < *(*b*)*e(r)na-zur*.

—gramatika zaharraren aztarnak antzeman ziren:

1. erreduplikazioak: *adats*,⁴ *odol, zezen, gogor, ahal, ohol, etab.*
2. aurrizkiak: *gi-* (*gibel, gihar, gizen...*), *la-* (*labar, labur, lagin...*), *sa-* (*sabel, samin, samur...*).⁵

2.2. Forma kanonikoaz eta fonologiaz

Azken urteotan hainbat hitz familia berri isolatzea lortu da eta baita lehendik ezagun ziren zenbait hedatzea ere (cf., esaterako, Lakarra 2011a). Hauen balio eta laguntza handia da etimologiagintzan baina baita hizkuntzaren fonologia eta morfologia zaharragoak erdiesteko orduan ere, dagoeneko Sagartek txinerarekin erakutsi bezala:

The reconstruction of Old Chinese is sometimes treated as a pure matter of phonology. (...) The central thesis of the present book is that in order to reconstruct Old Chinese phonology, a proper understanding of Old Chinese morphology and word-families is indispensable (Sagart 1999: 1).

Orobat, Erro teoriak, —zehatzago, nozbait hizkuntzak izan zuen erro-egitura monosilabikoak—, badu itxaroten ez genuen ondoriorik AE zaharren eta ondorengo garaien fonologiaren berreraiketan (ikus Lakarra 2011b). Esaterako, egitura monosilabikoan kontsonanteentzat soilik bi kokagune izanik (silaba bakar horretako hasierakoa eta amaierakoa), azaldu behar dugu gero hiru kokagune edo gehiagorekin genuena (bokalartekoa(k) barne, alegia) azpisistema txistukari eta ozenetan, eta baita nolakoa zen abiaburuan (AEZn) bortitz/ahul oposaketa baino lehen. AErren sistema klasikoan (cf. Mitxelena 1957, *FHV*) txistukari eta ozenetan oposaketa neutralizatu egiten zelarik hitzaren ertzetan —ahularen alde (ezker), bortitzaren alde (eskubi)—, eta soilik bokalartean gordetzen bere indar osoa, bokalartekoa AEZn falta zaigularik, nekez gauza zitekeen hor inongo oposaketarik, distribuzio osagarrian izanik (batzuk C₁-ean, C₂-an enparatuak) txistukari eta ozenak; alegia, lau S eta dozenerdi R fonematiko, bortitz/ahul oposaketaren bitartez bereiz-

⁴ Honenbestez, *adar* nekez izan liteke mailegu zeltarra, esan izan denaren aurka; ikus Lakarra (2002b) eta (2008a). De Bernardok (2006) erakutsi legez, mailegaketa-ustek bazituen arazo larriak alderdi zeltikotik ere.

⁵ Geroago (cf. Lakarra 2006b), horietako batzuk atzizki bilakaturik aurkitu ditugu euskara historikoan; uste izatekoa da aurrizkiak baino lehen preposizioak izatea, gero atzizkiak baino lehen postposizio izan bide ziren bezalatsu.

tea baino, egiantzekoago lirateke AEZrako bi S eta hiru R, artikulazio puntuaren arabera bereiziak (/š/, /s/, /l/, /r/, /n/).

Martínez Aretak (2006) ozen eta txistukarietarako bortitzen jatorria azaldu nahi izan zuen, Mitxelenak dagoeneko aipatu C + C taldeen bitartez, nahiz eta oso adibide gutxirekin. Beste lan batean (Lakarra 2009e), eman ditut hark aipatu gabeko -R- bortitzari dagozkion hainbat kasu, legozkiekeen etimologiek: ⁶ *arrain*, *arrano* < **e-da-ra-don-i* /-no, *arraultza* < **e-da-ra-don-tza*, ⁷ (*h*)*erro* < **e-ra-don*, *jarrain* < **e-da-ra-din*, etab. Azalpena -R- guztietara hedatu ahalko balitz (gehienetara bai, nik uste), -R bukaeran izan den fortizio eta neutralizazio berankor eta erabat orokortu gabearen bitartez azalduaz, bortitz/ahul oposaketa C-talde/C-soil oposaketara eraman ahalko litzateke dardarkarietan beste inon baino errazago eta, bide batez, azalpen bera gainerako ozenentzat oso egiantzeko eginaz.

AEZra atzeraka egin gabe ere susma liteke bortitz/ahul oposaketa ozen eta txistukarietan ez zela ez ugari ez zaharregi, are bere bokalarteko gotorleku horretan. VCV egitura hartzen badugu, *atso*, *atzo*, *atzi(tu)*, *etzi*, *etsi*, *utzi*, *otso*, *etse* eta *ase*, *oso*, *aza* eta isuri bide zaidan besteren bat baino ez dugu; dozena bat izan zitezkeen ehunetik (5 × 4 × 5) ez da asko, baina are okerrago da VSV egiturarentzat horko asko “modernoak” izatea: -i atzizkia, -e paragogikoa, edo nolabaiteko morfologia zaharra dute,⁸ eta beste zenbait tek mailegu izateko aukera. Hortaz, horko afrikatuak —jatorrizko lexikoarekin ari garenean— ezkerreko morfemako txistukariak dira, azken C-ri zorko litzaiokoen (AEZ ondoko) fortizioa pairatu dutenak, alegia.⁹

Ozenetan ere bortitz/ahul oposaketak etekin urria izateaz landa —nekez aurkituko ditugu VRV egiturako izan zitezkeen 150 kideak— bada aztarnarik pentsatzeko AEZn ez dela horrelako oposaketarik izan. Badiara, batetik, zenbait hitz mailegutzat har ditzakegunak: *ikus*, adibidez *alu* < *aluu*, *eskatu* < *uescor*, *arhan* < *balanu* (Ernout-Meillet 1979: s.u.); beste batzuek, Mitxelenak (1957 nahiz *FHV*-n) aukeratzat onartu bezala,

⁶ Traskek (1997) *erran*-ez kontsonante multzoa > soila proposatzen du baina zehaztu gabe hura nondik datorren; nireak guztiak dira ezkerretako -d- bat -n- bilakatu eta, hau eskubira joatean, hor aurkitu -r- batekin osatutako taldeetarik.

⁷ Mitxelenaren **erro* + -*kuntza*-k arazoak ditu atzizkiari dagokionez eta ez du kontuan hartzen hitz hasieran lehengo aurrizkien bilakabidearekin gertatua, honi eta besteri banakako aterabideak proposatuaz. Bestalde, nik inoiz **dul* erroa proposatu arren *arraul-tza* azaltzeko, aski da **don*-ekin: kontsonante aldaera berberak dira **enon-tze*-tik eta etimologiaren alderdi honetarako (n/l/ø) egoki da *FHV*n esana; ikus testuan aipatu lana.

⁸ *otso*-k esaterako: **hor-tz-so*; (2002b)-n **hor-so* soila eman banuen ere, uste dut hortik ezin dela *otso*-ra iritsi, gehienez ere *(h)*oso*-ra baizik; orobat *etse* (eta *hetsi*-ren familia) seguruenik *hertz*-eraino eraman liteke (cf. *herzte*, bide batez).

⁹ Forni (2013) ez da “ohartzen” (erabat estandarra izan arren) fortizioa berankorra (AEZ geroztikoa) dela, eta euskara historikoan txistukari afrikatuz amaitutako morfemak IEtik ateratzeko (gogora harentzat euskara hizkuntza IE bat dela!!!), C taldeak —edota, garestiago, gero C taldeak sortu ahal izateko bokal erorketak— proposatu beharko ditu (cf. Gorrochategui & Lakarra 2013 haren kritikarako); ikus § 6.6.3 -so hitz gehiagoren analisisirako.

talde kontsonantiko batetik bide dute beren ozen bortitza: cf. *baino* (< **ba-dadin-no*) / *baina*, *baia* (< **ba-dadin-a*), *arrano* (< **arran-no*) / *arrai(n)* (< **arran-i*), *bele* (< **bel-le*) / *beratz*; badira, oraindik, egitura handiagoen kontrakzioak, ozena atzizkian dutenak (*ile/u/e*) eta ez erroan. Honi guztioni gehitu behar zaio *r* bortitza C_2 -an fortizio batetik datorrela eta C_1 -ean (non ez litzatekeen agertu behar, gainerako ozenak bezala)¹⁰ aditzetako aurrizki multzo desfuntzionalizatu baten itxuraldaketatik: **arran-* < **e-da-ra-don*, *jarra* < **e-da-ra-din*, *arbin* < **e-da-ra-bin*, **ardano* < **e-da-ra-dan-o*, etab.¹¹

Bost herskari, gehi /h/, hiru ozen eta bi txistukarik hamaika kontsonante egiten dute; ez da asko, baina ez bedi pentsa gutxiagokorik ez denik, hawaieraren kasu ezagunaz landa ere. Baliteke beste nonbaitetik kontsonante (edo bokal) gehiago proposatu behar izatea aurki edo beranduago; nolahi ere, berreraiketak soilik lekukotasun aski edo (antzemateko lain) aztarna aski utzi dutenekin baino ezin du jardun¹² eta gogora lehenago ere markatu bezala, C inbentarioaren ugalketa bat datorrela beste hizkuntza eransle batzuen bilakabidean ikusitakoarekin (cf. Rao 1992).

2.3. Forma kanonikoaz eta etimologia formalaz

AEZrako CVC erro kanonikoa proposatzeak ez soilik mailegutan edo eratorrietan aurkitu **TVTV, baizik eta gainerako bisilabo eta polisilabo guztiak bilakatzen ditu ezinezko erro gisa garai hartarako; hots, edozein bisilabo edo polisilabo mailegu edo konposatu-eratorri zatekeen. Azken urteotan bisilabo sail zabalak sailkatu eta aztertu ditut (cf. Lakarra 2008a, 2009b, 2013a-ko Eranskina, prest.-a) erro-soil gisa AErako eta EBZko izan zitezkeen miatzeko eta, astiro-astiro, nabarmenduaz doa —Uhlenbeckek proposatu bidetik— ez etimologia edo erroak eurak, baizik eta erro-sailak behar ditugula hartu ikergai nagusizat.

Forma kanonikoaren azterketak etimologia formalaren oinarriak jartzen lagundu zigun (cf. Lakarra 2008b); honela, erro sailtetako euskal lexikoa antolatatu eta sistematikoki aztertzeke ondoko bost multzootan koka genitzake

¹⁰ Baina ikus aurreko ataletako bibliografia gehi *FHV* /n/-ri dagokionez. Ez da Forniren xeblekeria bakarra, noski; teoria estandarrean /m/ AE-rako ez behar izanak —eta, beraz, ofiziko berreraikitzaileek ez proposatuak— jaun horri ematen dizkion burukominak ez dira txikiak; “aterabidea” (**mm* taldeetarik abiatzea euskara historikoan lekukotu hainbat *m*-tara iristeko) bitxi da, zerbait esatearren.

¹¹ Bantuan antzekoa CAUS + APLIC kasuan; ikus Lakarra (2009e, 2011a) eta hor aipatu Good (2005).

¹² Damurik Juliette Blevinsek AE-rentzat proposatu sistema berriak (Oslo, 2013/VIII) ez du berreraiketa hori hobetzeko ezeren aldeko “ebidentzia” sendorik eta bai errazki antzeman litezkeen akats larriak etimologiaren eta berreraiketaren helburuen aldetik, euskalaritza huts-hutsik kontuan hartuaz ere: mintzo bitez indoeuroparlariak beraiei dagokienaz, hala nahi badute.

euskara historikoko edozein erro-eredutako kideak: a) mailegu, b) aldaera moderno, c) eratorri-konposatu, d) fonosinbolismo eta e) etimologia-gabeak. Bistan denez, soilik azkenengo taldekoek dute aukeraren bat zaharrak izateko; alabaina, badira zenbait iragazki (1. fonotaktikoak, 2. geografikoak) eta irizpide —gauzatuak / izan zitezkeenak, (a) eta (e)-n, bereziki— eredu bakoitzaren zahartasun edo modernotasun erlatiboa ikertzeko eta, horrenbestez, delako morfema baten diagnosi oinarritua (ez, haatik, jatorri zehatz) eskuratuaz; *alu*, *elhe* eta *eske*-ren erro-ereduak, esaterako, hain urruti dira ondare zaharrekoetarik, eta direlako erro-eredu horien profilean hainbatekoa da mailegu portzentaia, non aztertu beharreko bidea zen hitzok eurok ere mailegu izatea.

(2) Erro-ereduen emaitzak: hondar eta mailegu¹³

EE	IZ	L	%	EZ	%-1	%-2	H	%-1	%-2	M	%-1	%-2
CVC	325	152	46,76	70	46,05	21,53	48	31,18	14,76	12	07,89	03,69
oCV	85	29	34,11	07	24,13	08,23	06	20,68	07,05	07	24,13	08,23
aCVC	425	110	25,88	33	30,00	07,76	15	13,63	03,52	16	14,54	03,76
oCCV	215	39	18,13	08	20,53	03,72	06	15,37	02,79	10	25,63	04,65
aCV	85	64	75,29	04	06,66	04,70	02	03,12	02,35	14	21,87	16,46
uCV	85	44	51,75	05	11,36	05,83	02	04,54	02,35	07	15,90	08,23
aCCV	215	82	38,13	12	14,64	05,58	04	04,87	01,85	15	18,30	06,97
SVTV	300	75	25,00	13	17,33	04,33	04	05,33	01,33	28	37,33	09,33
oCVC	425	47	11,05	07	14,59	01,64	05	10,63	01,17	06	12,76	01,41
TVRV	600	195	32,50	25	13,07	04,33	04	02,05	00,66	95	48,71	15,83
TVSV	600	95	15,85	14	14,73	02,33	03	03,15	00,50	47	49,47	07,83
SVRV	200	71	35,50	05	07,04	02,50	01	01,40	00,50	27	38,02	13,50
hVVC	425	54	12,47	18	33,33	04,23	02	03,70	00,47	07	12,96	01,64
uCVC	425	54	12,70	05	09,25	01,17	01	01,85	00,23	05	09,25	01,17
RVTV	300	69	23,00	09	13,04	03,00	01	01,44	00,03	36	52,17	12,00
mVVC	425	94	22,10	12	12,76	02,82	00	00,00	00,00	47	50,00	11,05
TVT	900	190	21,11	16	08,42	01,77	00	00,00	00,00	80	42,10	08,88
uCCV	215	45	20,93	06	13,33	02,78	00	00,00	00,00	08	17,77	03,72
RVRV	200	41	20,50	02	04,87	01,00	00	00,00	00,00	14	34,14	07,00
CVmV	325	49	15,07	09	18,35	02,76	00	00,00	00,00	22	44,88	06,77
RVS	200	24	12,00	00	00,00	00,00	00	00,00	00,00	15	62,50	07,50

Izan zitezkeen erroetarik %10 gauzatzen dituzten ereduak baino ez ditut hartu hemen, datuak esanguratsuak izan daitezten. Beste lan batzuetan taula berezietan eman ditudan H (= “hondarrei”, hau da, etimologia gabeetarik iragazki fonotaktiko eta geografikoak gaintzen dituztenei) eta M (= “maileguei”) dagozkienak konbinatuaz aztertzen dira. Kopuru absolutuak (eta ondorioz erlatiboak) aurki berregokitu nahi nituzke, azken bospasei urteotako etimologia lanak kontuan harturik; zalantzarik gabe, bisilaboak asko jaitsiko

¹³ Legenda: EE = erro ereduak; IZ = izan zitezkeen erro kopurua; L = guztira (bost sailetan) lekukotutako erroak; EZ = etimologia ezezagunekoak.

dira H-n (ia batere ez monosilaboak) eta zerbait igoko M-n (hemen ere monosilaboek ez dute zirkinik izango). Ohar bedi soilik modu autonomoan le-kukotutako formak erabiltzen ditudala, **bel* bezalako erro seguru ezagun-zaharrak kontuan hartu gabe: berreraikitako erroak ere kontuan hartuko bagenu, monosilaboetako zifrak ia %100 igoko bide lirateke (cf. Lakarra prest.-a, prest.-b).¹⁴

3. Paradigma berriaren oinarriak: II. Tipologia berreraiketaren lagun

3.1. Tipologia holistiko diakronikoaz

Ezagun denez, tipologiak ez laguntza baizik eta oztopo eta arazo larriak ekarri izan dizkio hizkuntzalaritza historikoari, batez ere sailkapenak egiterakoan ikertzaileek metodo baten hatsarriak eta bestearenak nahastean XIX. mendean eta are beranduago. Hori da, oraindik, harmonia tipologikoari lotutako zenbait azterketaren kasua:

(3)		V	IA	
berebera	I	(= VSO)	+	
frantsesa	II	(= SVO)	+	
ingeleza	II	(= SVO)	-	
ketxua	III	(= SOV)	-	
euskara	III	(= SOV)	+	(cf. Lakarra 2006a)

Ikusten denez, euskarak SOV izanik Adj/I ordena izan behar lukeen arren, alderantzizkoa du. Dagoeneko Greenberg (1963) ohartu zen horretaz baina euskalariak lasaitu zituen izan lezaketen edozein artegatasunetatik, adieraziz ingelesak SVO izanik I/Adj behar eta kontrara zuela. Beharbada zenbait euskalari sinkronista lasai izatea helburu garrantzitsua izan liteke norbaitentzat, baina ez diakronistarentzat: hasteko, irregularitateak dira honen dituen laguntzarik (eta, beraz, ikergairik) interesgarrienak; bestalde, edozeinek daki, baita Greenbergekin ere, ingelesaren osagai hurrenkera *orain* dela irregularra baina ez lehenago, hizkuntza hori SOV zenean, alegia. Zergatik ez pentsa, bada, horrelakoren bat gertatu dela euskararekin ere eta I/Adj ordena historikoak lehenagoko SOV ez zen beste ordena nagusiagoren baten aztarna gordetzen duela? Honen ondorio gogorrena euskara VOS/VSO izatea litzateke, bestelako —baina bateragarri eta osagarri diren— arrazoiengatik, Gómezek (1994) eta Gómez eta Sainzek (1995) aldarrikatu bezala.

¹⁴ Lan honetan iragazki geografikoei buruzkoak ere berrikusi beharko dira, Bonaparten mapa modernoaren gaineko eskakizun oso malguen gainean eraikia baita. Benetan hitz bat EBZkoa jotzeko ere (zer esanik ez AEZkoa!), eskakizunen langa asko igo behar, halaber, alde honetatik; ikus artean Lakarra (2012a); eredu aldaketek Lakarra (2009b)-ko zenbait ohar eta hemen 43. oh.

Horrezaz gainera, tipologia holistikoa garatzean —hizkuntzaren alderdi ezberdinetako ezaugarri nagusiak lotzean— berreraiketaren ezusteko lagun-garri erraldoi bilakatu da; horrela Donegan-ek eta Stampe-k 1983tik aurrera garatu dutena (ikus orain D&St 2004, cf. Lakarra 2006a eta hh).¹⁵ Halaber, AEZrako proposatutako CVC erro-eredua nekez izan liteke euskara historiakoarentzat onartu ohi den tipologiarekin bateragarri (*pace* Trask 1998): SOV, postposizioak, atzizkiak, komuntzadura aberatsa, etab. Erro monosilaboa, aldiz, hizkuntza analitikoetan da harmonikoa; ikus Austerlitzek Eurasiako hizkuntza eransleez dioena, batez ere amaieran etzanez emanik dena:

Le terme “agglutinant” sera utilisé pour décrire les langues qui possèdent la plupart des caractéristiques morphologiques suivantes: suffixation (généralement en corrélation avec une absence de préfixation), un système de suffixes possessifs pour le substantif qui, généralement, peut être mis en corrélation avec les marques personnelles du système verbal, une syntaxe dans laquelle le déterminant précède le déterminé, un verbe fini, sorte de barrière à la fin de la phrase, des suffixes comparativement nombreux, des substantifs en fonction postpositionnelle. Tout cela suggère aussi, secondairement, la présence de l’harmonie vocalique, l’absence de groupes consonantiques initiaux *et de racines dissyllabiques* (Austerlitz 1976: 8).¹⁶

3.2. *Filologia tipologiaren lagun*

Lakarra (2006a)-n erakutsi zenez, beste hainbat ezaugarri ohikoak dira hizkuntza analitikoetan, SOV-eransle batean irregulartasuntzat jo beharreko direnak; bada, horrelakoak garrantzitsuak ditugu, hain zuzen ere, euskararen hainbat lekukotasunetan:

1. Adjektiboa izenaren eskubitara (V-aitzin duten hizkuntzetan bezala) eta adjektibo-sail itxia, hots, formalki berezi gabeko kategoriarekin;
2. erlatiboak izenaren eskubi ordena zaharrean (testuetan eta toponimian); orobat genitibo lokatiboak;
3. postposizio eta atzizki gutxi, konparatiboki, eta berankorrek gainera;
4. ISko aurrizki zahar ezezagun berriak (**la-*, **sa-*, **gi-*, etab.) eta ASrako beste zenbait, lehen ezagutzen zirenez gainera;
5. silaba irekirako joera modernoa, lehenagoko erroko silaba itxiaren aurka;
6. hasierako bokalen gehiketa eta kontsonante inbentarioaren hedadura baina sistema bokalikoaren iraunkortasuna; gertakari guztiok doaz bat eransletasunaren gehiketarekin, dravidikoan ikus litekeenez, adibidez;

¹⁵ Izatez, tipologia holistikoaren adibideak badira dagoeneko Holmer (1970) edo Houis (1970)-en; ikus Lakarra (2006a).

¹⁶ Etzana neurea. Posten azken urteotako hainbat lanetan (2006, 2012, adib.) ikus genezake tani hizkuntzak nola igarotzen diren egitura “morfosilabiko” (isolatzaile-monosilabiko)-tik eransle-bisilabikora.

7. aditz jokatuaren izaera berankor eta murrizta;
8. ergatibo markaren jatorria lokatibo bizidunetako *-ga* postposizioan;
9. lehenago aditz estatiboak ziren adjektiboen ugaritasuna, dravidikoz bezala eta tibeto-burmeraren alderantziz;
10. aspektuaren nagusitasun zaharra denbora eta moduaren gainetik aditzean, tibeto-burmeren legez eta dravidikoaren alderantziz;
11. marka gehiketaren bitartezko kasu lokatiboen espezializazio progresiboa; lehenago, kasuok orokorrigo bide ziren, tibeto-burmeraz oraindik diren bezala. Hortik urrunduz eta dravidikora hurbilduz joan da, bada, euskara;
- 12) azentuaren berreraiketa berria, azken silaban: erro monosilabikoan.¹⁷

Bide horretatik, Lakarra (2008b)-n zenbait multzo aditz berreraiki genituen; geroztik gehiago ere aurkitu ditugu, beheago (§ 6) ikusiko den bezala. Zalantzarik gabe, egiturek lehenago hizkuntzan morfologia urriago zela dioskute, baita VO > OV aldaketaren lekukotasuna ematen ere.

Hori gogoan, merezi du duela 30 urte (Lakarra 1983) aztertu gure gramatiketan agertzen ez den “X-ekin/-gaz Y = X eta Y” egiturara so bat egitea:

(4a) *X-ekin/-gaz Y = “X eta Y”* (Lakarra 2008c).

- i. Gomiz Gonsalu<c>h bertan çan / *beragaz Presebalen caltean* / Joanicoc eta beste ascoc / eudela parte bertan (“Arrasateko Erreketa”, *TAV*)
- ii. Gloria Patri / *Biz gloria Aitearekin semearentzat* / Biz gloria espiritu santuarentzat (Misere gip., *Olerti* 1982)
- iii. *Oguiagaz hura oragaz heroen elicatura* “Pan con agua, mantenimiento de loco y mastin” (*RS* 246)
- iv. *Çurequin ene aitasuna* / orrela ançi jaquinic? (Lazarraga AL: 1142v)
- v. Jauna, othoi indazu amaren bizia / *amaren biziarekin aitaren libertatia* (“Urthubiako alhaba”, 28-29)

(4b) *X Y-ekin/-gaz = “X eta Y”*:

- vi. Arren, choriac, exilic çaoz, / badoçu miramenturic; / *mundu guztia isasoagaz* / nançuçu, çaoz gueldiric (Lazarraga A10: 1-4)

Egitura arkaiko honek izan lezake garrantzirik A Eren morfologia eta sintaxia aztertzeke, Stassen (2000)-ren bi orokortasunetan oinarrituz:

(4c) Tendencies in the Casedness — AND/WITH correlation:

- a. If a language is Cased, it will tend to have AND-status.
- b. If a language has WITH-status, it will tend to be NonCased

¹⁷ Aurrizki > atzizki aldaketen euskarazko nahiz munda edo Australiako hizkuntzetako adibideez, ikus Lakarra (2006a, 2006b).

Tendencies in the Tensedness — AND/WITH correlation:

- a. If a language is Tensed, it will tend to have AND-status.
- b. If a language has WITH-status, it will tend to be NonTensed (Stassen 2000: 44, 46; ikus 70. oh.)

Aurreko guztia kontuan izanik —Donegan eta Stampe-ren ereduaren erreferentzia gisa erabiltzen badugu—, nabarmena da AE zaharrena mon-khmerretik edo austroasiatikotik zela hurbilago munda modernotik baino, euskara historikoa puntu askotan beste honetatik hurbil gelditu arren, deriba luze baten ondoren, seguruenik (cf. geroztik Post 2009-ren hurbilketa berdintsua indosferaz eta sinosferaz). Horrenbestez, Tipologia Holistiko Diakronikoak ez bakarrik aurretiaz genuen berreraiketa justifikatzeko edo hobeto ulertzeko baizik eta berri-sakonago —oso ezberdin— baterako urrats sendoak jartzen ditu.

4. Kronologia: I. Maileguak, substratuak, geruzak

4.1. Benvenistek, arrazoi osoz, kronologia konparatistaren eginbehar nagusitatu zuen (1935: 1-2); horren beharra aldarrikatzen zuelarik I Erao, ez da behar txikiagoa euskalaritzan. Gogoeta luzeak egin ordez (nahi duenak jo lezake Campbell 2000-ra), bi adibide aski izango bide dira:

a) Mitxelenak $-n- > (-h-) > \emptyset$ bilakabideaz esan ziezaigukeena ez da zehatzegia: soilik, lehen lekukotasunetarako hamargarren mendean burutua bide zela eta akitaniarretan, aldiz, ez dela horrelakorik. Beraz, hauetarik bestetara doazen sei edo zazpi mende ilunetan egingo zela.¹⁸ Múgicak (1996: 231) “claramente postdocumental” dio, nahiz eta gero zalantzak ageri *-ain* eta *-gue* amaierekin. Alabaina, nago bere alde gehienez ere erdarazko grafia duela.

Hasteko, esan behar da Mitxelenarentzat (cf. Lakarra 2012a: § 2) lehen lekukotasunetarako dialekto bereizkuntzak jazoak zirela, baina $-n- > -h-$ bilakabidea garaian /h/ gordetzen zuten dialekto guztietarako suposatzen da, are hasperena lehen lekukotasunetarako galdua zuen GN edo GNren zatiarentzat. Bestalde, $-i_2/-u_2 > -\emptyset$ (gainerako konposizio eta eratorpeneko erregela fonetikoak legez) Mitxelenarekin euskalki guztietakoak eta EBZkoak (ez gibleko berrikuntza paraleloak) direla onartzen badugu, orduan *artzain*-era iristeko behar diren hiru erregelak ondoko ordenan behar ditugu ezarri: 1. $-n- > -h-$; 2. $h_4 > \emptyset$; 3. $-i_2 > -\emptyset / _ \#$. Kontrara egingo bagenu (1. $-i_2 > -\emptyset / _ \#$, 2. $-n- > -h-$) hirugarrena, $h_4 > \emptyset$, ezingo litzateke garatu eta ez dut ikusten zein litzatekeen arrazoa ***hartzai(n)*, ***harrain*, etab. ez izateko (cf. Lakarra 2009f), *harea* edo *herio* bezala, $*h_3 > h_1$ erregelarekin (Lakarra 2009d).

¹⁸ Egia esan, LOHI bada akitanieraz (nahiz eta SENI famatuagoa ere izan); bi aukera ditugu horren aurrean: onartzea $-n- > -h-$ hasia zela —baina ez hedatua— III. menderako, edo ondorioztatzea delako izen horrek ez duela ikustekorik euskarazko *lohi* < **don-i* ezagunarekin; bigarrena ez da erraza onartzen hitz horren egiturari kasu eginaz, ez baitirudi inguruko hizkuntza enparatuetan antzekorik aurki litekeenik.

Bada argudio erantsi bat, ahulagoa, beste hizkuntza baten fonologia-tik egindako jauzia baita eta ez euskaran bertan zuzenean oinarritua; izan ere, Chambon-ek eta Greub-ek aitzingaskoiera datatzerakoan, ondoko berrikuntzak erabili zituzten: (a) $F > h$; (b) $N > \emptyset / V_V$; (c) $LL > r / V_V$; (d) $LL > t^* / V_ \#$; (e) $MB, ND > m, n / V_V$; (f) $\emptyset > a / \#_R$; (g) “Fusion de B et de W” (2002: 473). Guztien konbinaketak aitzingaskoiera dagoeneko 511. urterako bazela (okerrenean ere bai 600.era) —eta, horrenbestez, ez zela oraindik eratu gabe zen proventzeraren dialekto bat, baizik eta latinetik zuzenean garatutako hizkuntza— ondorioztatzen daramatza (2002: 492).

Chambonek eta Greubek ez zuten hitz bat ere esan beren lanean Luchairez geroztik aldarrikatu izan den Antzinateko euskarak gaskoieran izandako ustezko eraginaz, hots, lehenak bigarrean izan zuen substratu estatusaz. Delako substratu izaera hori ondoko ezaugarrietan oinarrituko litzateke Luchairengandik datorren tradizioarentzat: “(1) Ausencia de /v/; (2) Repugnancia por /f/ [eusk. /b/, gask. /h/]; (3) Ausencia de *r*- inicial; (4) Mutación de *-l-* en *-r-* (gask. *-ll-* > *-r-*, *-l-* > *-l-*); (5) Supresión de *-n-* entre vocales” (Gorrochategui 1984: 75-76). “Como consecuencia del paralelismo en el tratamiento de estos cinco cambios fonéticos, concluía Luchaire admitiendo el influjo éuscaro de la configuración del gascón” zioen Gorrochateguik (1984: 76) eta, gaskoieraren eta euskararen arteko antzekotasunen azalpen hau onartzen badugu, begi-bistakoa dirudi substratu hizkuntzan aldaketa komun horiek hizkuntza hartzailean baino lehenago gertatuko zirela.

Chambonek eta Greubek (2002: 477) gaskoieraren *-n-* > *-ø-* bilakabidean lau garai ezberdin ezartzea komenigarritzat dute: “(i) nasalisation régressive partielle de la voyelle précédant /n/; (ii) nasalisation complète, vélarisation de /n/, changement de la coupe syllabique; (iii) passage de [ŋ] à une constrictive, puis amuïssement; (iv) enfin, dans la plupart des parlers, dénasalisation de la voyelle” (2002: 477). Lehen bi zatiak 511. urterako amaitutzat jotzen dituzte eta, beraz, hala bide zen substratuko hizkuntzan ere.¹⁹

b) Atzizki mailegatu zenbait (*-mendu*, *-tate*, *-ura*, etab.) “latinetik hartutakotzat” izan ohi ditugu; beste batzuk (*-tazio*, *-enzia*, etab.) erromanikotzat. Komeniko litzateke gauzak pixka bat zehaztea, zeren ustezko data horiek ez datoz bat lekukotasunen azterketarekin: XVIII. mende hasierako Hegoaldeko zenbait testu azterketak ondoko emaitzak dakartza E (ondare zaharreko) eta G (mailegatuak) erro eta atzizkien konbinaketaz: -ZIO (20: 0 E); -DADE (9: 0 E); -(E)NZIA (9: 0 E); -MENTU (9: 0 E); -DURA/TURA (6: 1 E-5 G); -SO (6: 0 E); -AL (5: 0 E); -ANZA (4: 0 E); -ATA/ATU (4: 0 E); -ERO/U (4: 0 E); -TA/TO (4: 0 E); -DORE/TORE (3: 0 E); -EZA (3: 0 E); -IA (3: 0 E); -MENTE (3: 0 E). Hots, G/G di-relarik (ia) gerta litezkeen konbinaketak, XVIII. mendearen lehen zatiko He-

¹⁹ Euskararen aldetik Igartuak (2008: 185-187) *-n-* > *-h-* aldaketa fonologikotzat du: hasieran [n] hasperendua edo [h] sudurkaritua /n/-ren alofonoak zirelarik, gero /h/-renak izatera igaroko ziren. Hasperenaren hainbat alderdiz ikus Egurtzegi (2013b), Igartua (2002 eta 2010) eta Lakarra (2009d, 2009f, 2010, 2013d).

goaldeko hizkeretan oraindik horiek guztiak edo gehienak bertakotu gabe dira, soilik erro mailegatuei loturik aurki bailitezke (cf. Lakarra 1997a).²⁰

4.2. Gutxi landu da kronologia gure artean eta horren ondorio gaiztoen zerrenda luzean sar genitzake periodizazioaren ahuleziak ere. Beharbada latinetik hartutako maileguak zahar eta berri bereizteko Mitxelenaren 1974ko saioa izan liteke aipagarrien; ikus haren oinarritzko irizpideak:

dada la corta historia de ésta [euskara], la separación de los varios estratos de préstamos, de fecha muy diversa, ha de hacerse, a falta de testimonios, sobre criterios internos, fonéticos o semánticos. Si nos atenemos a los criterios formales, los más fáciles de aplicar objetivamente, han de tenerse presentes dos aspectos, contradictorios a primera vista: en términos generales, los préstamos serán tanto más antiguos cuanto mejor conserven su aspecto original y, a la vez, cuanto más lo hayan modificado. Serán antiguos, en otras palabras, en la medida en que no muestren señales de los cambios fonéticos que se han realizado en los romances vecinos, pero también en la medida en que han participado de otros, propios del vasco mismo, ya que esta participación es la mejor prueba de que se habían incorporado al léxico de la lengua antes de su cumplimiento. Unos y otros, sin embargo, pueden coincidir alguna vez y también sucede que la configuración fónica del préstamo, poco característica, no alcance a dar luz acerca de la fecha de su introducción (PT, 197-198).²¹

Horrezaz landa, Mitxelenak berak erakutsi zuen mendebaleko deklinabidean *-a* enborretan den kontraesana singularraren eta pluralaren artean: *alaba + a > alabea*, *alaba + a + -k > alabeak* :: *alaba + a + -k > alabak* (***alabeak*), *alaba + ai > alabai* (***alabeai*). Hemendik Mitxelenak singularra zaharrago dela atera zuen (erregela horrek eragiten baitio) eta plurala berriago, erregelaren eragina eta, beraz, aldia, igaro ondokoa.²²

²⁰ Alderantziz, 0 G edo ia *-TASUN*, *-ZKO*, *-GARREN*, *-LE*, *-RO*, *-TE*, *-TZE*, *-KI*, *-TZA*, *-GABE(KO)* eta *-TI* atzizkiekin.

²¹ Horko irizpide eta hatsarriak nahiz Mitxelenaren beste hainbat lanetakoak gogoan, nekez har genezake aurrerapentzat Segura eta Etxebarriaren (1996) lan “pankroniko” eta zehaztasunik gabea, Maite Etxenikek oso bestelako iritziria agertu duen arren behin baino gehiagotan.

Orobat, harrigarria begitantzen zait Fornik (2013) aurkeztu IE eta euskararen arteko sasi-erkaketak direla eta kognadotzat ez bada ere zeltatik euskarak hartu mailegu-geruza etengabetzat jotzea ezerezkeria horiek Koch jaunak (2013); eta lasai asko egin ere, alegia, berari zailegi suertatu beharko ez litzaiokeen inongo azterketarik gabe eta aurreko bibliografiarik ez balitz bezala. Tartesiaoa zeltaren bidez azaldu nahi duen egile horrek ba ote susmorik ere zeren gainean oinarritua den AE-ren berreraiketa (ikus § 1.3 eta han aipatu erreferentziak) eta, horrenbestez, euskalarientzat zer izan zitekeen latinetikoak baino 500 edo 1.000 urte lehenagoko mailegu geruzak izatea? Kontu horiei azken 65 urteotan ez ote zitzaion lantxoren bat edo arreta gehixego egokituko? Diotenez, ordea, ausardia, harrokeria eta ezjakintasuna usuegi eskutik joan ohi dira.

²² Ikus, bidenabar, Guiter (1989)-ko kronologia proposamena § 4.2 akabuan; orobat Ariztimuño (2013b)-ko ohar interesgarriak disimilazio honek eta *doa / daroa / izan* (pl) + *-an / -ala* eransketak batera harturik atzizki horien gramatikalizazioaz esan diezaguketenez.

Orain arte ikusi ditugun kasu biak (maileguen fonetika edo sing./pl.-en eraketa) kronologia erlatiboaren bidez aztertu dira: $x > y$ bilakabidea $y > z$ baino berankorragoa dela atereaz, esaterako, bestela $**x > z$ izango baike-nukeen. Zailago da guretzat data absolutuak ematen, horretarako ditugun lanabesak berankorrek edo urriak baitira. Alabaina, mailegatuez *cella* (> *gela*) euskarara *ce-*, *ci-* > *tx-* bilakatu aurretik igaro zela dakigularik, eta baita hizkuntza hartzailean *k-* > *g-* jazo zela, bi eratako ondorioak atera ditzakegu: erlatiboak batzuk, —*g-*maileguak *tx-*maileguak baino zaharragoak direla—; baina baita absolutuak ere besteak, esaterako, *k-* > *g-* “*x*” data baino lehenagokoa dela, erromantzez *k-* > *tx-* urte horren inguruan datatua baita.²³

Hara Guiter-ek 1989an burutu euskal hotsen datazio-saio laburra, Strakak (1951-54) aldaketa erromanikoez egindako ikerketen gainean eraikia:

(5) 200	300	400	—	1000	1100	1200
<i>p-</i> > <i>b-</i>						
<i>t-</i> > <i>d-</i>	<i>mp</i> > <i>mb</i>	<i>n</i> > \emptyset	<i>nt</i> > <i>nd</i>		<i>l</i> > <i>r</i>	<i>ll</i> > <i>l</i>
<i>k-</i> > <i>g-</i>			<i>nd</i> > <i>n</i>		<i>nn</i> > <i>n</i>	
<i>mb</i> > <i>m</i>						

Ez da erabiliegia izan eta baditu (ezinbestean) hutsune nabarmenak ere IV. eta X. mendeen artean (ohar bedi, halere, goian aipatu *-n-* > *-h-* > *- \emptyset -* Mitxelenak baino askozaz lehenago eta akitanieratik hurbilago ezarririk duela). Alabaina, segurki izan liteke hor egilearen beste lanen batean —1968ko euskara eta piktoren erkaketan (!)— baino interes gehiagoko gairik. Halaber, gehi bekio honi goraxeago aipatu Chambon & Greub (2002: 473) ere: gogoratzen badugu lehen Mitxelenak *-n-* > \emptyset aldaketari buruz esana (300-1000 bitartean), ohartuko gara argudiaketa kate honek asko mugatuko lukeela (300-400 bitartera edo).²⁴

4.3. AEZ eta AEMren periodizazio gintzan zenbait aldaketa fonologiko eta morfologiko erabilgarri aipa bide liteke:

1. **d-* > *l-*. Hau Mitxelenaren AE baino lehenagokoa da definizioz, /d/ fonema hitz hasieran ezinezkoa baitzen bertan, “orainaldietako adizkietarik”²⁵ eta maileguetarik landa (cf. 1957). Aldiz, CVC egituretan asko dira **e-dVC*: **e-daR-i*, **-edul-(gi)*, **eden*, **edin*, **edun*, etab., eta baita bigarren osagaietako *-dats*, *-dots*, *-datz*, *-dur*, etab.

²³ Pierret-ek (1994: 158), beti ere Strakari jarraituaz, III. mendekotzat ditu /k-/g- + e,i/ taldeen sabaikaritzeak.

²⁴ Rohlf-sentzat (1977) bilakabide hau ez litzateke substratuaren ondorio, Erromaniako beste toki batzuetan ere agertzen delarik; bai, aldiz, gainerakoak. Ekonomikoago dirudi, Lu-chairez geroz gehienek egin bezala, goiko aldaketa zerrenda hori bere osotasunean aztertzea (cf. Gorrochategui 1984, etab.). Ikus Rohlf's bera hurrengo atalaren amaierarantz *l* eta *n* ondoko neutralizazioaz.

²⁵ Orainaldiko huts baino lehen (XVI. mendean bertan) “orainaldiko eta futuroko” ere baziren *da-* adizkiak eta, zalantzarik gabe, arrazoiz azaldu zuen Traskek (1977) “aspektu burutu-gabeko” markatzat beste hainbat hizkuntzatan bezala. De Rijk (1992)-ko teoriaren aurka dago, besteak beste, *d-* hori gordetzeaz ezer ere ez esatea, Lakarra (2006b)-n markatu bezala.

2. Ez da erreduplikaziorik IVC erroentzat: ***lulur*, ***lalar*, ***lalats*, etab. —ezta beranduagoko (***lurur*, ***larar*, ***larats*, etab.) ***VrV*-rekin ere—; bai, aldiz, **(n)onol* (> *ohol*), **(n)inin-tz* (> *ihintz*), [cf. *adar*, *eder*, *odol*, *d-gabe*], etab. Beraz, **d-* > *l-* egin baino lehen fenomeno hau agortua bide zen.²⁶

3. e-CVC aditzak **Th-* > *h-* baino lehenagokoak bide dira (baldin eta **Th-* > *h-* erregelarik izan bada, bederen): *ekharri*, *ekhusi* dugu, baina ez ***eharri* edo ***ehusi*.

4. Aurizkiak seguruenik agortuak ziren AEMn (erreduplikazioa bezala); ohar bedi egitura ere bertsua dutela. Nolanahi ere, akitanieraz zail da horien lekukotasun bizirik aurkitzen.

5. CVC erroetan hasieran ez dira bi kokagune baizik txistukari eta ozeentzat —are gutxiago herskariantzat, jakina, baina hauek ez ditut hemen aipatuko— eta distribuzio osagarrian dira C₁-eko frikariak eta C₂-ko afrikatuak, horrela benetako oposaketarik inon ez dela; soilik gero, bisilabismorako bidean, sortu zen -C₃-, barneko kokagunea, zeinetan zuten lehendabiziko bereizkuntza hori egiteko aukera.

6. Lakarra (2011b)-n markatu legez, ondoko lau sailetan ilunago eta, horrenbestez, zaharragoak dira (c) eta (d), lehen bi sailetakoak baino; bistakoa da batzuen eta besteen artean morfologiazko hazkunde moldea aldatu egin dela eta baita hitz-familiena ere:

- | | |
|--|---|
| a. <i>gazi</i> , <i>atze</i> , <i>jale</i> ; | c. <i>gogor</i> , <i>zezen</i> , <i>adar</i> ; |
| b. <i>harbel</i> , <i>gordin</i> , <i>zaldun</i> ; | d. <i>lagun</i> , <i>gibel</i> , <i>samur</i> . |

5. Kronologiaz: II. Euskara Batu Zaharra

5.1. Euskal dialektologia diakronikoari buruzko orain arteko lanik garrantzitsuenean, Mitxelena euskalkiak ez AEtik baizik eta gugandik askozaz hurbilago (v-vi. mendeetako) hizkuntza egoera batetik zetozela aldarrikatu zuen 1981ean.

Lan honen ondorioak ez dira garatu ez agortu, ezta hurrik eman ere: berak horrela markatu ez arren, *FHV*ren zenbait zati berregitea eskatzen duela aipatu izan dut beste lan batean (cf. Lakarra 2012a); hara, adibidez, diptongoen kapituluaren hasiera: “Los diptongos que son comunes a todas las variedades conocidas de la lengua y que se pueden postular como mínimo para el protovasco son *au*, *eu*, *ai*, *ei*, *oi*” (*FHV* 87).²⁷ Bistakoa da dialektok EBZtik bada toz eta ez 500 edo 1.000 urte lehenagoko AEtik, bost diptongook EBZkoak

²⁶ Aldiz, akitanieraz bada HAHANTEN, hVC-ren erreduplikazioa bazela erakutsiaz; ezaguna da, bidenabar, ez zela akitanieraz eta ez Erdi Aroan Grassmannen legerik (Reguero 2012an Erdi Aroan Mendebalean ez baina Ekialdean bazela aldarrikatzen da).

²⁷ Kapitulu honek izan zuen gehiketa aipagarria bigarren argitalpenean, diptongoen ebo-luzioa eta silabaren egiturarena lotuaz, baina ez testuan axola zaigun berreraiketaren metodologiazko puntuari dagokionez.

liratekeela *gehienez ere*, ez 500 edo 1.000 urte lehenagoko A Ekoak, ordea. Bestalde, *i-/u-* alternantziek (*uzen/izen, urten/irten, ule/ile, utzi/itxi...*)²⁸ ez dute, noski, A Erako unitate erantsirik definitzen; are gehiago, *gehienez ere* diptongo ezagun batetik (**eu*) datoz horiek guztiak —zenbait aldaera beste batetik (*ei*) igaroz—, eta diptongo hori ez da AE eta ezta EBZ ere.

Ene ustez (cf. Lakarra 2012a), hizkuntzalari gisa EBZrekin arazo nagusia zera da: Mitxelena ez zuen —ezta ondoko inork ere, jakina—, hizkuntza eraikuntza hori linguistikoki definitu eta haren beharra justifikatu (hots, beste bi egoera linguistikoren artean zehazki kokatuaz), hizkuntzaz kanpoko gertakarien eta gogoeten bitartez baizik. Izan ere, Mitxelena interesatuago zen bere 1981eko lan hartan batasun ondoko ezaugarriak badirela markatzen eta batasuna hautsi denetik dena ez dela bereizkuntza erakusten, ezen ez batasun garaitik zer datorkigun komunik edo —hobe— batasun garai horretako geruzak eraikitzen (cf. Petit 2007). Hortaz, lehenik egin beharko genukeena zera da, AEM eta EBZ berezi, beren arteko aldaketen (bigarrenaren berrikuntzen) bitartez. Horien artean lirateke, esaterako, ondoko bilakabide fonologiko eta morfologikoetarik zenbait:

(6)

A. FONOLOGIA

- | | |
|--|---|
| 1. T- > D- (hasierako hers. ahostuntzea); | 9. $*d_1 > \emptyset / V_V$; |
| 2. $*-n- > -h-$; | 10. $a - o > o - a$ metatesia aditzean; |
| 3. \tilde{V} ; | 11. $-n > -r / _ \#$ |
| 4. Diptongoak; | 12. $*b-, *k- > \emptyset-$; |
| 5. $*-n- > -n$; | 13. $-l- > -r-$; |
| 6. $*-r > -h$; | 14. $-i_2/-u_2 > \emptyset / _ \#$; |
| 7. $*hVh > \emptysetVh$; (eta $*hC > \emptyset C$) | 15. $-V_3 > \emptyset / _ \#$. |
| 8. $*e- > j / _ V$; | |

B. MORFOLOGIA

- | | |
|---|-----------------------------------|
| 1. $*lVC > -la$; | 6. $-z(a)$ pluralean; |
| 2. $-n > -\emptyset$ (<i>jo, lo</i>); | 7. $-aga$ IS-ren pluralean; |
| 3. $-o > -a / _ \#$; | 8. $-tze$ artizkia aditz izenean; |
| 4. $-tze$ aditz izena; | 9. $-kidi$ aditzean; |
| 5. $*ezan$ ALag.; | 10. $-eta$ IS-ren pluralean. |

5.2. Banaketa bitarrak eta besteak

Blažek-ek (2007) bildu eta erkatu zituen II. Mundu Gerraz geroztiko IE hizkuntzen sailkapen garrantzitsuenak; labur esateko, ez da hor aurkitzen Bo-

²⁸ Ez dira askoz gehiago; bestalde, *urten* eta *irten*-en aldean bada *erten* ere eta *ule/ile*-ren alboan *elle*, gauzak pixkat konplexuago direla erakutsiz. Orobat, *utzi/itxi* bikotean (*eutzi* GZn eta *eitzi* ZZn lekukotzeaz landa), *u-* erdialde/ekialdekoa eta *i-* mendebaldekoa izatea ere ez doa ohiko azalpenaren alde, ezta *uzen/izen* eta *untsaur/intsaure* bikoteen distribuzioa ere.

naparteren nahiz Zuazoren (1998) zortzi edo sei adarreko (nahiz Mitxelena-ren hamabiko) eta adabegi bakarreko zuhaitzik.²⁹ Berdintsu genuke austronesioaren (Clark 1987 eta Lynch, Ross & Crowley 2002, beste askoren artean) edo kartvelikoaren (cf. Mitxelena 1964) eta uralikoaren (cf. Janhunen 2009) zuhaitzarekin ere: hau da, zenbat dialekto hainbat eten dira enborrarekiko, eta etenok inoiz ere ez dira altuera berean jazoak: beste hitzez esateko, IE hizkuntzalaritzan (eta austronesioan, semitikoan, bantuan, uralikoan...) adarkatze bikoitza aurkitzen dugu, ez *n*-koitza, zortzikoitza, seikoitza edo hamabikoitza izan. Hemendik jarraitzen da dialektoek zeinek bere data dutela eta bik —are gutxiago gehiagok edo guztiek— ez dutela halabeharrez ere data bera, edozein izanik ere delako bikote hori.

Hots, idealki bederen, ezaugarri garrantzitsu baten aurrean —edo, gutxiagotan, ezaugarri multzo bakar baten aitzinean—³⁰ bi taldetan bereizi ohi dira delako hizkera guztiak: A hizkuntza edo hizkera, delako *a* aldaketa hori jaso edo jasan dutenak, eta B hizkuntza edo hizkera, *a* ez dutenak. Ezaugarri hori(ek) berrikuntza zaharrena(k) d(ir)elarik, esan ohi da hori(ek) d(ir)jela bide “A hizkuntza/hizkera bereizi egin dela B aitzin-hizkuntza edo familia-tik”. Euskararen kasuan, (gainerakoetan gertatzen denaren aurka) badirudi adarkatze horietako kideak behingoz definituak gelditu zirela 1863an, geroztik ez baita funtsean gauza handirik aldatu, modernoki dituzten ezaugarri eta mugetan oinarriturik, eta ez dela ageri prozesua bera, egoera moderno horretara iristeko jazo diren bilakabideen bitartez. Halaber —eta honek duen larritasuna begi-bistakoa da hizkuntza historialariarentzat—, IE, austronesio, kartveliko nahiz gainerakoetan ikusi ohi dugunaren aurka, euskalkiek adin bera lukete, guztien gailurrean jarritako EBZren amaierakoa (VIII-IX?, XI-XII?), gutxi gorabehera.

Nabarmena da honelako hurbilketa baten desegokitasuna, isoglosek ez soilik hedadura baizik datak ere ezberdinak baitituzte eta ezin, beraz, inolaz ere data eta hedadura bera izan B, G, GNren... definizioetan sartzen diren (hots, sar ditzakegun) guztiek. Hizkuntzaren sistematik atera eta hizkuntzaren geografia moldatzen duten eszenario historiko, ekonomiko edo kulturale-tara bagoaz ere, zaila da onartzen EBZtik momentu berean 8-12-6... dialekto sortzea, gainerako familietan —askoz ere lurralde zabalagoetan, bidenabar— une jakin batean bi baino egiten ez direnean. Hori bai, euskararena baino historia ezagunagoko familia horietan beste-bi-eta-beste-bi... etengabe jarraituaz doaz zatiketak —hizkuntzalariak banaketa horietarik gutxi batzuei kasu

²⁹ Egia esan, antzeko emaitzak lortuko bide genituzke Ringeren lan ezagunetan edo McMahon & McMahon-en (2005) eskuliburu argian. Bide batez, bada hor (7. eta 8. ataletan) glotokronologiari etekin interesgarririk eta lexikoaz kanpoko datuekin zuhaitzak egiten has-teko saiorik. Honetan froga berri bat bide dugu —oraindik honen beharrik balitz— akitanieraz eta AE-n ere /h/ bagenuela esateko.

³⁰ Interesgarriak dira “koherentzia geolinguistikoiari” buruzko Caminoren oharra (2008: 238, 2012: *passim*); ikus, orobat, Camino (2013) ere.

egin nahi edo ahal izan arren—, euskalariok behinolako bakar harekin aseturik gelditzen edo garelarik.³¹

Bi dialektok halabeharrez ere ezin dute data bera izan, askozaz zailago euskalki guztiek, edozein dela ere hartzen dugun sailkapena; zehazki, soilik adabegi beretik atera eta eskaileraren maila berean diren bik lukete data bera, data hori bata eta bestea sortzen dituen aldaketarena baita.³² Euskalaritzan erabili ohi diren dialekto sailkapenetarik kanpo utzi ohi da, ordea, diakronia, gainerako familietan adarkatze bikoitzaren bitartez dialektologiak eta diakroniak beren lanaren egiteko nagusizat hartu dutelarik ezaugarrien garapenaren azterketa, aldaketan hurrenkera eta banaketa dialektalak lotuaz. Aitzitik, gure artean izan ez den jokamolde horrek ekarri ohi ditu aurrerapenak, bai datazio absolutuetan, bai erlatiboetan eta baita hizkuntza aldaketa eta gizarte aldaketaren arteko erlazioaren ikerketan ere, honen hizkuntzazko oinarri dagokienez, behintzat. Haatik, iruditzen zait ez ginatekeela galduan aterako diakronistak tradizio garatuagoetako ohiturak hemen ere zabal balitez: gure iraganari buruzko ustekizun eta lillura zenbait ezabatzeaz landa, historiaurrearen berre-raiketarako lanabes finduagoak bide genituzke, batez ere Meilletek (eta Mitxelena) hainbatetan eskatzen zuten *philologie de précision* harekin elkarlanean arituaz (ikus Lakarra 1997a, 1997b) eta liburu honetako Urgellen lana.

5.3. Hauek honela, eta gogoan izanik hor ezer gutxi dela datatua, komeni da berriro Guiter-en kronologiara jo (§ 4.2) eta /l, n/ ondoko herskariei kasu egitea. Z eta Err ekialdean gainerakoetarik bereizten dituzten ahostuntzeak oso zaharrak lirateke horren arabera (300-400). Bestalde, fenomeno hori betidanik Z eta Err-ren arkaismo gisa azaldu ohi den arren, gogoratu behar da dagoeneko *FHV*n ematen zela gauzak oso bestela ulertzeko biderik, ondoko aipuko bigarren ahapaldian ikus litekeen bezala:

Hay dos maneras de interpretar estos hechos. La más natural parece pensar que en vascuence se ha llegado a neutralizar la oposición sorda / sonora detrás de nasal y *l* sonorizando en esa posición las oclusivas sordas con posterioridad a la introducción de los primeros préstamos latinos: *ronc.* y *sul.* serían por tanto dialectos arcaizantes que han conservado mejor el antiguo estado de cosas.

Pero acaso se pueda suponer también que se trataba de un tipo de lengua en que la oposición quedaba suspendida en esos contextos, en los cuales las oclusivas se pronunciaban uniformemente sonoras (o lenes). En este supuesto, las nuevas formaciones y los préstamos que presentaban grupos formados por nasal o *l* + oclusiva se seguirían acomodando por bastante tiempo al tipo normal, siendo el roncalés y el suletino los dialectos

³¹ Azken batean, banaketa bitarra ez da dialekto zatikatze hutsari eta bakarrik horri dago-kion ikuspegi partikularren bat, edozeinek ikus lezakeen bezala, binarismoarekin lotura zuzena baitu, haren aplikazio huts (baina ez simplea!) delarik, azken batean; gogora Camino (2008). Zail bada, *i > u* soil batez azaltzea *FHV*-n inoiz saiatu bezala.

³² Ikus Lakarra (2012a)-ko ohar zenbait EBZ-z geroztiko adarkatzeaz eta orobat EBZren sorguneaz.

que primero abandonaron esta práctica. Esto quiere decir, naturalmente, que *alte* y *galte* p. ej. eran palabras complejas que habría que analizar *al-te* y *gal-te* del mismo modo que según toda probabilidad *igante* era *igan-te* (FHV 355).

Badira hiru argudio erantsi —gutxienez— bigarren alternatiba honen alde: batetik, teoria estandarrean ezaugarrien hedadura dialektala, ustezko arkaismoa erdian (mendebalagorako euskararen eta ekialderagoko erromantze ahostundunaren tartean)³³ eta berrikuntza komunak ertzetan direla, —logika guztiaren aurka—; bestetik, ahostun / ahoskabe ulertu beharrean ahul / bortitz gisa ulertzen badugu oposizioa eta kontuan badugu kokagune berean txistukariek gertatua, orduan neutralizazio zaharra ahularen alde zela (frikaria haietan, ergo ahostuna hauetan) eta aldaketa gero bortitzaren alde bilakatu zela eremu batzuetan (afrikatua haietan, ahoskabea hauetan). Hirugarren argudioa gero berriro aipatuko dugun “Trasken legea”-k ematen diguna litzateke:³⁴ atzizki batean ahostun/ahoskabe (/zero) txandakatzea denean, hark ahostuna aldarrikatzen du zahartzat: ohar bedi /l, n/ ondoren ez dela ***hanti* edo ***alti-ri* ekialdean, baizik eta *handi* eta *aldi*, gainerakoetan bezala. Honenbestez, berritzaileak Z eta Err balira, hor genuke EBZren lehen etena, agi danez.³⁵

³³ Ezinutzizkoa da Rohlfen analisia (1977: §§ 445-446 eta 448-451) gaskoieran eta aragoieran herskariak izandako bilakabideaz: bokalarrean ahoskabeak ahostun bilakatzeko ez diren lurralde bertsuak, *p, t, k > b, d, g* aurkitzen dugu *l, r* eta sudurkari ondoren, hitz-akabuaz landa:

Sur les versants français cette prononciation est presque générale dans les trois vallées de Barétous, d'Aspe et d'Ossau. Il y a encore quelques rares exemples (*aude, croumba*) dans les villages situés entre Oloron et Tarbes (v. Saroïhandy, p. 20). Au nord de Pau ce fait semble aujourd'hui inconnu. En Espagne l'aire embrassant ce phénomène est beaucoup moins étendue (§ 450)

Hori aski ez balitz, *ld, ng, mb > lt, nc* eta *mp* bilakatzeko diren lurraldea ere oso zabala du: Lavedan, Bigorra eta Aure ibarrak Pirineoetan, iparrean Akize arte (eta inoiz harago) eta Landak ia osorik Golkoan. Bilakabide hauek hiperzuzenketa gisa azaltzen dituelarik, Rohlfen ondorioak garbiak dira, lehenago Saroïhandyk bezala ahostuntzea “influence de l'ancien substrat indigène” gisa berariaz aldarrikatuaz. Baliteke, beraz, Err eta Z berritzaileak nahiz arkaisak izan —eta badirudi lehenaren aldeko aukerak badirela—, *l-n* ondoko herskari ahoskabeen tratamenduan diren ezberdintasunak aski zahar eta garrantzitsu izatea Ekialdeko Euskara Zaharra Erdi-Mendebaleko Euskara Zaharretik bereizteko; gainera, horren kronologiaren arabera, EkEZ adabegia litzateke zaharrena, gero horren barnean aski goiz bereizi zirelarik Z eta Err.

³⁴ “Finite forms are not part of my brief here, but I cannot resist pointing out that the existence of the competing forms *-ki* and *-i* suggests a common origin for both in an earlier **-gi*. The splitting of an original **-gi, -ki* and *-i* would strongly parallel the split of the plurality marker **-de* into *-te* (as in *dute*) and *-e* (as in Biscayan *dabe < *daue*), with *-de* surviving in a few forms like *daude*” (Trask 1995: 231).

Borja Ariztimuñok (ik. orain haren 2013c) eta Blanca Urgellek ohar interesgarriak bildu dituzte Lazarragak sistematikoki egiten duen 3p.pl / 3p.s. bereizkuntzaz: *daue / dabe- (zebe-, lebe-)*. Esango nuke **-de* pl. markatik abiatuaz errazki azaltzen dela bataren kontsonantizazioa eta horraino iristen ez den bestearen hiatoa.

³⁵ Gauzak nahasiago dira *alde/alt(h)e*-rekin J.I. Hualdek gogoratu bezala. Iñaki Caminok ere (2011, 2012, 2013) uste du —eta zabal eta zuhur argudiatzen—, Z-Err izan zela EBZtik

6. Gramatikalizazioa eta gramatika zaharraren berreraiketa

If we dismiss every case of polysemy as accidental we deprive ourselves of the possibility of ever finding out whether the two functions are in fact related or not. If, in contrast, we try to discover a relationship, in the worst case we may find that non exist. But in an optimal case we may find out that a connection exists, and the explanation of this connection may shed some light on the nature of language structure and of language change (Frajzyngier 1986: 233).

6.1. Gramatikalizazioa “morfema lexiko izatetik gramatikal izatera edo gramatikala denean gramatikalago bihurtzea” definitu zuen Kurylowicz-ek. Meilleten duela mende batekotik hona bada beste hainbat definizio, baina aski zaigu poloniarrena; bertan bistakoa da fenomeno honekin lotu ohi den direkzionalitatearen arazoa³⁶ eta jakinak dira, orobat, prozesuak berarekin dakartzan funtzio gehiketa eta fonetikazko zein semantikazko urritzea. Hara, esaterako, erakusle > artikulua edo *ahal*-en zenbait bilakabide: ALag (*etorri ahal da*), ‘oxala’ (*hilko ahal da*), *al* ‘baiezko/ezezko galdera marka’, etab.

Azken urteotan —hor dira, esaterako Joseph, Janda, Frajzyngier, Campbell, Saxena bera eta beste askok Campbellek (2001) nahiz Fischer, Norde & Perridonek (2004) argitaratutako liburuetan idatziak— gramatikalizazio fenomeno bakarra ala beste zenbait bilakabide lehendik ezagunen ondorio edo epifenomeno den eztabaidatu izan da; badirudi gehienak bigarren hurbilketa honen aldeko direla (cf. Campbell 2013). Halere, Josephek (2001) berak aitortu bezala, gramatikalizazioaren azterketa oso emankorra izan da hizkuntza aldaketa ulertzeko, eta horregatik euskalaritzan ere eman izan zaion baino arreta gehiago merezi duela deritzot, teoria linguistikoaren aurrerapenak beti ere kontuan izanik:

lehendabizi banatu adarra. Beste aukera bat, EBZrentzat Mitxelenaen datazioa edo berankoragoren bat gorde nahi badugu, zera izango litzateke, Z eta Err EBZtik kanpo uztea, hori eta AEM bitarteko adabegi batetik bananduaz.

³⁶ Baina hara Haspelmath (2004: 17) lan arrakastatsu baten hasieran bertan:

The paper is divided into three main sections, in which I will make the following larger points:

- i. If we want to understand language change, we need to identify universals of language change. Directionality constraints are among the strongest universals of language change (Section 2).
- ii. The unidirectionality of grammaticalization is the most important constraint on morphosyntactic change (Section 3).
- iii. Most cases of “degrammaticalization” that are cited in the literature do not show the reversal of grammaticalization (or “antigrammaticalization”), but something else (Section 4).

Ez da ahaztekoa Carol Lordek bere liburu bikainaren akabuan (1993) gai honetaz Lightfoot-i eman erantzun egokia ere.

During the past two decades, the revived interest in grammaticalization phenomena has firmly established itself as one of the most flourishing branches of historical linguistics (...) it would seem that grammaticalization ‘theory’ provides the principal framework to account for the origin of and changes within grammar and hence a forceful tool for reconstruction (Fischer, Norde & Perridon 2004: 1).

Gure artean gramatikalizazio ezagun gisa aditz laguntzaileenak aipa bide ditzakegu; nago, ordea, ez direla behar bezala aztertu, “hautu” pankroniko gisa aurkeztu baitira eta ez geografia ezberdineko berrikuntza kate legez (ikus Lakarra 2012a). Gramatikalizazio gradu aski ezberdinak dira aditzotan, jakina: **ezan* edo *iro* guztiz gramatikalizatuak ditugu historikoki —ez dira ANag bezala lekukotu ere egiten, ez dute aditz-izenik ere— eta **edin*-ena ia-ia (badira ANag gisa dozenerdiren bat adibide Leiz, *RS* eta *VJ*-en);³⁷ *egin*, aldiz, askozaz atzeratuago dugu gramatikalizazio bidean: soilik Mendebaldean —baina hor, B eta A-z landa, ia G osoa barne (cf. Mitxelena 1954, Etxaide 1984, Lakarra 1986, Mounole 2007)— eta horko testurik zaharretarik, baina **ezan*-en lekukotasunekin dozena batzuk biltzen direlarik oraindik; bai hor, eta bai gainerako lurraldeetan ere ANag gisa ederki lekukotua dugu, aditz sintetiko gehienak legez azken mendeotan itzali bitartean. *Izan* eta **edun* Euskal Herri osoan dira ALag bezala dokumentatuak baina ANag bezala ere arruntak dira ekialdean eta soilik azken mendeotan jazo da **edun* → *eduki* eta *izan* → *egon* aldaketa Hegoaldean.

Artikuluaren gramatikalizazioaren jatorria (3. graduko erakuslea) unibertsala edo ia unibertsala dugu (cf. Greenberg 1977 eta Manterola 2006) eta haren sorreraren berankortasuna ere ezaguna da aspaldi —Vennemannentzat edo Veleiako artistarentzat kenduta— v-vi. mendetik (ez lehenago) gaur arte Europa osoan hegoaldeetik iparralderantz hedatu delarik: gure inguruko erromantzeetan Lapesak (1961) VIII. menderako ezarri zuen kategoriarren sorrera eta, beraz, gurera zabaldu baino lehen igaroko ziren hamarkada zenbait.³⁸ Bere hedaduraren norabideaz ere zerbait badakigu eta gehiago jakiteko aukera dukegu Julen Manterolaren lanari esker (cf. 2008b, 2009, etab.).

³⁷ Ikus Lakarra (2006b)-ko adibideak eta hango erreferentziak; Lazarragaren bat ere gehitu ahal da oraindik.

Oraingoan (*jite*-) aditz-izena, *izan*, *bada*, baina erabat urrundurik jatorrizko esanahitik; orobat *dadin*, *zedin*, etab. ez dira hartzen *jin*-en adizki gisa.

³⁸ Elexpururen liburuko portadan LURRA, SUA, URA III. mendekotzat agertu arren, oraindik ez da artikulurik zenbatezinetan XII. mendeko Aymeric Picaud-en hitz zerrendan, edozeinek jakin behar lukeenez (cf. *TAV* eta Azkarate & Altuna 2001); erromantzez ere horietara hedatu ziren azkenetarik: ikus Company (1991). Bestalde, *neure*, *eure*... < **X-haur-e* direlarik (cf. *FHV*), eta forma horiek *-h-* > *-ø-* ondokoak (eta baita *-Vau-* > *-Veu-* > *-eu-* ondokoak ere), nekez izan zitezkeen III. mendean Veleiako euskararen. Ikus Gorrochategui (2011) eta, lehenago eta zabalago, (2002).

Deklinabideko bi kasu marka (-*gaz* soziatibokoa eta -*rean* ablatibokoa) aipatu zituen laburki Mitxelenak (1981), gramatikalizazio horiek dialektalak —eta, beraz, aski berankorrek— izan arren, lehengaiak (-*z* ‘instrumentalekoa’, -*ga* ‘bizidun lokatiboa’, -*re* ‘genitiboa’, -*a* ‘artikulua’³⁹ eta -*n* ‘inesiboa’) lehen eta orain orokorrek direla eta, beraz, hor ezin dela dialektoen arteko ezberdintasun larriegi edo sakonegirik bila.

6.2. Direkzionalitatea gramatikalizazioaren berezko ezaugarritzat dugarrik, ez da zer esanik semantika diakronikoaren azterketari —eta, beraz, euskal etimologiarenari—, eskein diezaiokeen laguntza, batez ere ahaidetik gabeko eta testu erlatiboki modernoak dituen gurea bezalako hizkuntzarentzat. Are estimagarriago, gainera, ezagun delarik berreraiketan alderdi semantikoa dugula ahul eta zailena: usu aitzin-hizkuntzetako morfemak esanahi zehatzik gabe dira eta esanahi-aldaketak ere ez dira beti argiak eta zehazki azalduak.

Izan ere, Meilletek eta Benvenistek (cf. de Lamberterie 2000) beti ezinbestekotzat jo zuten etimologiaren motibazioa gramatikalizazioaren azterketak eskura diezaioke etimologiagileari, susmo, iritzi eta gutxi-gorabeherakoak saihestuaz edo alpalduaz:

Nous pouvons les comprendre [*sc.* les sujets dont traite le livre], leur reconnaître une certaine structure, les ordonner en un schème rationnel, si nous savons les étudier directement en nous dégageant des traductions simplistes, si nous savons aussi établir certaines distinctions essentielles, notamment celle, sur laquelle nous insistons à plusieurs reprises, entre *désignation* et *signification*, à défaut de laquelle tant de discussions sur le ‘sens’ s’effondrent dans la confusion. Il s’agit, par la comparaison et au moyen d’une analyse diachronique, de faire apparaître une signification là où, au départ, nous n’avons qu’une désignation. La dimension temporelle devient ainsi une dimension explicative (Benveniste, *apud* de Lamberterie 2000: 113; etzanak neureak dira [JAL]).

Itxaroten dut gero (§§ 6.6.1 hh) ikusiko direla adibide gehiago; hemen bat aurreratzekotan, hara **ardano* famatuak eskeintzen diguna. Dakidanez, aspaldidanik zabaldua da Bzah. *ardâô*, B-G-L-Z *ard(a)o*, N *arno* eta euskalki orotako *ardan-* (konposizio-alomorfoa), euskal fonologiaren erregela ezagunak (-*n* > *h* (> \emptyset), -*V*₃ > \emptyset) gordeaz bil litezkeela **ardano* zaharragoan. Ez dut nik hori ukatuko; aitortu dezagun **ardano* edari horren *izena* zela (*désignation*) baina ez horren *esanahia* (*signification*). Bigarren hau bilatzen badugu horren erroa (**dan*), horren eraketa (*ar-* < **e-da-ra-*, cf. *arrain*, *arrano* < **e-da-radon*, -*o* < **don*, ikus § 6.6.1), eraketa horretan parte hartzen duten osagai guztien esanahia eta funtzioa, hitz horren familia (*eradan*, *edari*..), etab. ezagutu

³⁹ Honezaz ezer ez dioen arren, pentsatzekoa da Etxepareren analisisian (2013) -*a*- hau ere -**ga* ‘ergatibo’-tik letorkeela (orobat Jakobsen-De Rijk-Trask ikerketa lerroaren barnean). Azken hauen aurkako arrazoiren bat aipatu nuen Lakarra (2006a)-n; geroztik Manterolaren lanek argitasun asko ekarri dute alderdi honetara. Ikus 62. oh. -*aga*-ren jatorriaz.

behar baititugu. Artean ez dugu benetako etimologiarik hurbilketa formal bat baizik, dela beharrezko, interesgarri eta are ezinbesteko ere.⁴⁰

Gramatikalizazioak —etimologiagintza osoa konpontzeko gai izan ez arren—, direkzionalitateagatik, batetik, eta nolabaiteko holismoagatik, bestetik, artean ez bezalako aitzinamenduak ekar ditzake aldaketa semantikoaren ezagutzan, non eta hizkuntzaren muin den gramatikarenean: erakusle > artikululu, aditz nagusi > laguntzaile, aspektu > denbora... dugularik gainerako hizkuntzetan, *dator* edo *dakar*-en *da*- ASP ala DENB genuen erabakitzea ez da zailegi, batez ere fonologia (***d*- > *l*- falta) eta testuen irizpideek ere Trasken alde (1977: ASP) eta de Rijken kontra (1992: DENB) argiro mintzo direnean (cf. Lakarra 2006a).

Orobat, Kaledonia Berriko gure antipodetakoetarik hasi (cf. Lichtenberk 1985) eta hainbat hizkuntzatan izanik aditzetako nahi IS-ko datibo marka eta are datiboko aditz laguntzailea edo “datibo etikoa”, GIVE (eusk. **nin*) euskaraz *indazu* eta gainerakoak azaltzeko merezi ote du **nin* horretatik ala *jin* edo *egin*-etik abiatu behar dugun eztabaidatzeak —are beren gramatikalizazio-sareak hain ezberdinak izanik (cf. Heine & Kuteva 2002)— fonetikak, gainera, **n*-ren alde egiten duelarik?⁴¹

6.3. Mark Postek erakutsi du 2006tik honako hainbat lanetan (ikus Bibliografia) aitzin-tania —tai, vietnamera, txinera eta Asia Hego-Ekialdeko hizkuntza asko legez—, morfossilabikoa⁴² zela, orain tani hizkuntzak eransleatarik hurbil izan arren. Sinkronikoki agortuak diren hainbat egitura emanakor zirela ikus liteke familiako hizkuntzen arteko konparaketaz eta morfema gramatikal asko lehenago lexema askeak. Morfologia-kateak ere aski gardenak izan ohi dira, txandaketa eta bestelako fenomeno idiosinkratiko gabe, eta, beraz, berreraiketa morfosintaktikoa aski erraz burutu liteke. Fonologian, lehenago silabei zegozkien erregela eta murriztapenak orain hitz bisilabikoei dagozkie, hau baita hitzen (eta baita erroen) tamaina berria; silabei zegozkien tonuen ordeaz, hitz bisilabikoei dagozkien azentuak garatu dira.⁴³

⁴⁰ Cf. “contre les abus de l’étymologie pré-structurale, É. Benveniste... réagit en opposant au laxisme sémantique une exigence de rigueur, qui se traduit d’abord par quatre refus : refus d’étymologiser à tout prix : refus d’identifier des lexèmes en raison de leur seule homophonie; refus de jouer sur les possibilités — illimitées — qu’une traduction ambiguë peut offrir à l’étymologie: enfin, refus des sens vagues” (Haudry, *apud* de Lamberterie 2000: 111, 8. oh.).

⁴¹ -*n* hori (*indazu*, *dinden*, etab.) ezin da C₂ izan CVC erroan: cf. **edun* → *dugu* (ez ***dungu*), *eroan* → *daroazu* (ez ***daroanzu*), etab.; cf. Lakarra 2006b.

⁴² “A ‘morphosyllabic’ language is an analytical language with the basic unity syllable —morpheme— word. This useful term was coined by Light (1978), and was first applied to the Tani languages by Sun (1993)” (Post 2012: 22, 12. oh.). Ikus bedi Bisang (2004) Asia Hego-Ekialdeko hizkuntzetako zenbait gramatikalizazioz.

⁴³ Antzeko bilakabideak euskararen historiaurrean ia begi-bistakoak dira eta zenbait aipatu ditugu 2006a eta ondoko lanetan (cf. 2009b, adib.), usuenik txineraren paralelismoak go-goan (ikus Feng eta Duamnuren lanak esaterako eta orain Michaud 2012 ikuspegi zabalago baterako). Azentuaz —ez behar bada gure kronologiarekin— ikus Elordieta eta Egurtzegiren lana liburu honetan eta hor aipatu aurreko beste zenbait.

Predikatu egitura honelatsu dugu:

A finite Galo predicate is then terminated by one of a small set of predicate inflections, the majority of which are easily relatable to verb roots (Table 4). No other morphology, nor any morpho-phonology which might support a reconstruction of obsolesced morphology, occurs anywhere in the string (Post 2012: 27).

Hots, aitzin-hizkuntzan (buru-aitzineko) multzo-aditz egitura zuen. Postek markatu bezala, egungo egunean galoaren eta enparatuko tani hizkuntzen aztertzaileek bi aukera dituzte: atzizki gramatikalen eta erro lexikoen arteko loturei ezikusiarena egin eta hizkuntzok polisintetikoak bailiran aurkeztu, edo erro lexiko konposatu gisa edo serializatu gisa aztertu, Asia Hego-Ekialdeko hizkuntza gehienak bezala:

We seem to lack the analytical vocabulary (as well as, perhaps, the conceptual apparatus) to identify the entire class of predicate derivations as “something in between” a root and a suffix. However, in light of the diachronic perspective outlined in preceding sections, it becomes evident that this is precisely what Galo predicate derivations are, and for good reason. They resemble the lexemes of a serial verb construction because this is their diachronic origin, and they resemble suffixes because they have been reanalysed as grammatical dependents. That they should be, in some sense, grammatically intermediate, should not therefore strike one as particularly strange (Post 2012: 29).⁴⁴

Beharrik gabe inor ez izutzeko —ortodoxia zaharren bateko segiziokoren bat edo—, hara Mark Baker-en aspaldiko pasarte pareta, erabat desegoki ez bide direnak ez datuei eta ez hurbilketari ere dagokienez:

Many people have observed that notions which are expressed by Serial Verb Constructions (SVCs) in the Kwa languages of West Africa correspond to a large degree to those which are expressed by derivational verb morphology in the Bantu languages of East Africa (...) Givon (1971) argued in a generative semantics framework that Bantu and Kwa have similar underlying structures; the difference between the two was that ‘predicate raising’ takes place in Bantu not in Twa. I will argue that this insight, in an updated Government-Binding theory version, is essentially correct” (Baker 1991: 79-81; kwa hizkuntzen bilakabideaz ikus Hyman 2004).

Eta bere ondorio gisa:

We have seen that Bantu applicatives can be understood as having the same underlying structures and theta role assignment relationships as SVCs in Kwa, the only difference being that certain elements are affixes rather than independent verb roots. (...) This case study supports the idea that there is more than a functional similarity between serialization and affixation constructions. Indeed, the two types of constructions share the

⁴⁴ Cf. hurrengo oharrean euskarazko *-raino*.

same formal syntactic skeleton as well —a skeleton determined by Theta theory and the Projection Principle (Baker 1991: 99).

6.4. Multzo-aditzak

Duela urte batzuk (2008b) erakutsi nahi izan nuen euskaraz ere, noizbait izan zitezkeela “multzo-aditzak” (*serial verbs*, aurrerantzean MA) deitu ohi diren egiturak eta oraindik ere eskura ditzakegula horietako batzuen arrastoak. Egitura horiek Afrika Mendebaleko eta Asia-Pazifikoko hizkuntzetan ikustera ohituak gara —ez, aldiz, Europako hizkuntzetan— eta, funtsean, komunztadura (TAM nahiz pertsona nahiz bestelakoak) marka gabeko aditz segidak (bikoak eta hirukoak gehienetan,⁴⁵ baina seikoak eta gehiagokoak ere) lekukotuak dira:

(7a) A serial verb construction (SVC) is a sequence of verbs which act together as a single predicate, without any overt marker of coordination, subordination, or syntactic dependency of any other sort. Serial verb constructions describe what is conceptualized as a single event. They are monoclausal; their intonational properties are the same as those of a monoverbal clause, and they have just one tense, aspect, and polarity value. SVCs may also share core and other arguments. Each component of an SVC must be able to occur on its own. Within an SVC, the individual verbs may have same, or different, transitivity values (Aikhenvald 2006: 1).

(7b) Keoi³ jap⁶ heoi³ co⁵
3sg enter come sit
'He went in and sat down' (kantonera; *apud* Aikhenvald & Dixon 2006: 69)

(7c) In summary: we can posit two opposite tendencies for the two types of SVCs. The minor verbs in asymmetrical verbs tend to become grammatical morphemes, losing their verbal status. This process is pervasive in some languages, exemplified in this volume by Ewe and, to a large extent, Toqabaqita (also see Aikhenvald forthcoming, on Manambu). As a result of this ‘grammaticalizing’ tendency, there may be no asymmetrical SVCs synchronically. We will see in § 6 that, historically speaking, languages develop asymmetrical SVCs prior to symmetrical. But this does not mean that languages keep both intact (Aikhenvald 2006: 34).

Honelakoak, izatekotan, euskara historikoan ezagunen dugun sistema-
ren antipodetan direla esango luke edozeinek; ez naiz, ordea, azken 500 edo

⁴⁵ Ikus Yeh & Shuanfan (2009) Formosako zenbait hizkuntzatako MA hirukoitzez. Bide-nabar, *-raino* de Rijk (1992) *-ra* + *-gino* zatitzen zuen baina, (2008b)-n esan bezala, hobe genuke *-ra* + *-(d)i-* + *-no*, analizatzea, *-g-* hori beste askotan bezala *-D- > ø* ondoko *ø > C* hia-to-hauslea dugularik. Analisi hori MA sistemara “itzuliaz”, **dar* + **din* + **non* (TO SIT + TO COME + TO GO TO) genuke, “UNTIL”-ekin beste hainbat hizkuntzatan legez.

1.000 urteotako aditzaren egituraz ari.⁴⁶ Euskaratik hurbilago diren hainbat hizkuntzatan —eransleetan zein eransletarako bidean izan litezkeen munda austroasiatikoetan halaber tani, tibeto-burma hizkuntzetan, orobat Ameriketako hainbat hizkuntza polisintetikotan— aurkitu izan da delako MA egiturak bi bidetatik eralda litezkeela: 1) lexikalizatuaz maila berekoetan (gazt. *correvidile* ‘mezulari’ edo *sartu-urten* lirateke adibide onak marka morfolo-gikorik eta sintaktikorik ez balute) edo 2) gramatikalizatuaz hierarkia apalagoko osagaiak.

6.5. Euskararen historiaurrean horrelakorik bazela erakusteko aipatu 2008ko lan horretan eskutada bat ere bildu nuen:

- (8a) **da-*: *da-tor*, *da-kar* eta antzekoetan Traskek (1977) etorkian aurrizki ala ALag ote zen erabaki gabe utzi zuen; egun esan genezake ALag > Aurr ohikoa den arren, —seguruenik “Prep.” batetik igaroaz—, kontrakoa ez dela inon ezagun. Beraz, Aurr < ALag < ANag datorrelarik, noizbait bi aditz (**dar* ‘sit’ eta **thor*) izan ziren hor. Bidenabar, ‘SIT’ da munduko hizkuntzen artean perifrasi burutugabeak/inperfektiboak sortzeko aditzik ezagunena; ikus § 6.6.4 *da*-ren gramatikalizazio gehiagotarako.⁴⁷
- (8b) **den*: cf. *eten* (: *ekoiz-*, *epai-*, etab., < **-D...-te* lege zaharrarekin), *atse-den*, *lepo* (< **den* + *-bo*; cf. *orpo* < *hoin* + *-bo*), *edeki*, *lehen* (< **den-en*), etab. Hau bide zen lehengo ‘FINISH’; *amai(tu)* XIX. mendekoa da eta erabat dialektala (cf. *OEH*, s.u.). Aditz honek MA egiturak dituzten hizkuntzetan perfektua markatu ohi du. Liburu honetan bertan Borja Ariztimuñok argitaratu ohar ezin interesgarriagoz betetako artikuluak gogorarazi dit 2008ko lanean ahaztu behar ez nuena: ‘finish’ ez da amaierako *-en* atzizkian, barneko *en-* aurrizkian baizik (dagoeneko hau markatua zuen Céline Mounolek bere tesiaren [2011] aurreko idazketa batean). Mexikoko olultekerez 3.p.pl ere aditz honetatik garatzen da, Zavalak (2006) dioskunez. Kontuan izanik Trasken legearen arabera *-de* dugula plural horren forma zaharrena, ez da arazorik euskaraz ere joko bikoitz bera izan dezan eta, urrutiago den arren, IS-ko pl.eko *-e-* ez bide da hor-

⁴⁶ Bestalde, Traskek (1977) eta baita Gómezek ere (1994) hitzegin zuten aditz inpertsonalaz; horrezaz landa, TAM ere falta da MA egiturak dituzten hizkuntzetan (gogora § 3.2ko Stassen 2000ko orokortasunak *with*-hizkuntzez). Aditz urriko hizkuntzez eta lan akabuko Frajzyngier-en aipua MA egiturez, posposizioez/preposizioez eta *with*-hizkuntzez. Ikus Pawley (2006).

⁴⁷ Argigarri bide da Newman (2002) eta Lakarra (2008b: 52. oh.)-n aipatu Bybee *et al.* (1994: 127-128)-ko pasarte progresiboaren iturriez:

Thus our general theory of grammaticization would predict that progressive is a sense that occurs early in the process of grammaticization and might develop into the more general meanings. Second, historical and comparative evidence exists (...), which shows constructions with progressive meaning developing into presents or imperfectives. (...) Third, our own data contain some cases that appear to be intermediate between the more specific progressive and the more general imperfective or present senses. Finally, our data also show that the same range of lexical sources gives rise to progressive, imperfective, and present.

tik askea.⁴⁸ Ohar bedi -CVC > -CV dela bilakabide arrunta, behezagoko -*di*, -*do* eta horietarik sortuek dioskuten legez. Multzo aditzetan *gramatikalizazioak* hizkuntzaren sintaxiaren arabera dagokien kokaguneetan gertatzen dira, ez (lexikalizazioan ohi legez) ikonikoki dagokienean.

- (8c) **nin*: ‘GIVE’ aditza —euskaraz *eman*-en sinonimoa, partizipiorik eta aditz -izenik ez baina *indazu*, *iguzu*, *dinden* eta beste zenbait sintetiko arkaiko eman dizkiguna— munduko hizkuntza askotan gramatikalizatu izan da datiboko ALag, IS-ko datibo marka, AS-koa, *dativus ethicus* eta beste hainbat funtzio beteaz (cf. Lichtenberk 1985). Euskaraz ere hor dira *dio*, *zenidan* eta gainerakoetan gauzatu laguntzailea, -(*r*)*i* datibo markaren atzizkia IS-n, *i*- zenbait aditz zaharretako (*izeki*, *irabazi*, *izan*) datibo gisa (cf. Oregi 1974), -*i*- aditz jokatueta (*dezaion*, *diezaiozun*, etab.), eta, nola ez? hikako formatuko palatalizazioak.⁴⁹

6.6. Trasken legea (cf. § 5.3ko aipua) erabili nuen 2008b-n **den* erroaren -*de/-te/-e* alomorfoen artean bereizteko. Gauzak honela, duela ia bi hamarkada baino gramatikalizazioaz gehiago eta hizkuntza haborotatik abiatuak dakigula progotxatuaz, eta baita forma kanonikoaren azterketan izandako aitzinamenduak kontuan izanik, iruditu zait on litzatekeela bata eta bestea konbinatzea euskararen historiaren, —bere gramatika historikoaren—, azterketan.

Ondoren Heine eta Kuteva-ren (2002) gramatikalizazioaren hiztegiaren irakurketa arin batek bidera ateratzen dizkigun⁵⁰ lau kasu aurkeztuko ditut laburki hurbilketa honen adibide gisa.

⁴⁸ 2008ko lan horretan ez nuen markatu olutekean badela Heine eta Kutevaren goiko zerrenda horretan ageri ez den —eta, itxuraz, munduan zehar hain zabaldua ez den— pluralaren beste jatorri bat ere:

The first-person plural marker on the verb developed from the verb *?it* ‘exist’. This suffix occurs in contexts in which the primary object of the clause (i.e. theme of transitive verbs and recipient/benefactive of ditransitive verbs) is first person plural, and the “A” argument is either second or third person (...). The verb stems with the shape V-*?it* are formally intransitive (...) the verb only takes the absolutive proclitic cross-referencing the ‘A’ argument. The first-person plural ‘O’ is only indicated by the suffix -*?it*, which is not part of the paradigm of person proclitics (Zavala 2006: 297).

Euskaraz *dabil-tza*, *dato-z* (< **dator-za*) batetik eta *dakar-tza*, *daroa-z* (cf. *darama-tza*) ditugu, bestetik. Aditzetik kanpo *belartza*, *jendetza* zein *k.k.tza* ditugu eta toponimian *Lizartza*, *Adurza*, *Olza* eta enparatu kontaezinak. Atzizki honen hedadura mendebalean eta *nor* aditzetatik *nork-zer* aditzen objektu pluralera ezaguna da: gogora, orobat, *dituz*, *zitzuzan* etimologikoki pleonastikoak.

⁴⁹ Ezaguna denez (cf. Campbell 2013), multzo-aditzak izan ohi dira kasu-marken iturri nagusi; hara Givon uto-azteka hizkuntza (polisintetikoez):

In the Uto-Aztecan language Ute, all locative case markers originate from historically still traceable precursor verbs which have turned into noun suffixes, no longer carrying any discernible residue of verbal properties (*apud* Heine 2011: 462).

⁵⁰ Ohar bedi liburu horrek “kontzeptu sarreren” zerrendari (‘TO COME’, ‘TO GO’, etab.) alderantzizko Eranskini interesgarri bat (“helburu sarreren” zerrenda) gehitzen diola: “completive” < TAKE, “perfective” < FINISH, etab.

6.6.1. *-ti*₁ ‘Adj’ / *-ti*₂ ‘ABL’:⁵¹ Dagoeneko Lafonek aipatu zuen bi atzizki hauek duten lotura semantikoa eta formala, baina ez zuen haien azken jatorriaz hipotesi asebetegarririk:

La symétrie de *apal erortzen* et de *goiti mirigiten* me donne à penser que *goiti* est un adjectif, employé ici comme attribut (...). Comme d’autre part, le basque possède un suffixe d’adjectif *-ti*, qui a servi à former, par exemple, *gezurti* ‘menteur’, *beldurti* ‘craintif’, *adurti* ‘baveux’, de *gezur* ‘mensonge’, *beldur* ‘crainte’, *adur* ‘bave’, je suis porté à penser que le suffixe *-ti* de *goiti* est le même que celui de *gezurti*, et que *goiti* ‘en haut’ ne fait qu’un avec l’adjectif *goiti* ‘qui est en sus, par-dessus’.

Je crois, enfin, que l’ablatif en *-ti*, élargi plus tard en *-tik*, est un ancien adjectif qui a été intégré au système de la déclinaison. Dans la vieille langue, en effet, un mot pourvu du suffix *-ti* et qui fait figure de complément à l’ablatif peut souvent être considéré comme un adjectif attribut ou placé en apposition.

Le proverbe 44 d’Oihenart, *Asiti bihia*, est une phrase sans verbe qu’un basque d’aujourd’hui traduirait par “le grain procède de la semence”. *Asiti* est en effet l’ablatif actuel de *asi* (*azi*) ‘semence’ en souletin. (...) Mais Oihenart, qui avait un sens très vif de sa langue traduit: “le grain vient tel qu’estoit la semence”; les mots en italique “sont des adioutements faits au texte basque, pour vne plus ample explication d’iceluy”. Ce proverbe signifie donc proprement “le grain est de la nature de la semence, semblable à la semence” (Lafon 1999 [1948]: 202-203).

Orain *hordi*, *geldi*, *handi* —seguru asko baita *erdi* eta, agian, *irudi* ere— bezalako *forma sparitak* kontuan izanik (ez da ***horti*, ***gelti*, ***hanti*, ***erti*, ***iruti*), *-di* zen (ez *-ti*) adjektiboak egiteko atzizkiaren forma zaharra (cf. *-de* < **eden* : *-di* < **edin*). Hots, ‘bihurtu’ esan nahi zuen aditzetik dator adjektiboak egiteko atzizkia.⁵² Izatez, badakigu aditz horrek bazuela beste esanahi bat ere, ‘etorri’, alegia, historikoki *jin* aditz beraren alomorfo berantiarrean gordea. Bada, hara zer aurkitzen dugun (9a-b)-n, Heine & Kuteva-rengandik harturik berriro ere:

(9a) COME FROM > (1) ABLATIVE (LOCATIVE, TEMPORAL)

Ewe *tsó* ‘come from’ > preposition ‘from’ (Westermann 1907: 97). Swahili *kutoka* ‘to come from’ (intransitive verb) > *kutoka* ‘from’ (locative or temporal preposition): *kutoka Nairobi mpaka Mombasa* ‘from Nai-

⁵¹ Zehazki “prosekutibo” genuke euskaraz, B-A-G (partez) zaharretan, hori eta *-rean*, benetako ablatiboa bereizten ziren neurrian. Ohar bedi, nolnahi ere, *-rean* hori aski gardena dela (cf. § 6.1 akabuan), dagoeneko Mitxelena (1981, etab.) erakutsi bezala, eta nekez pentsa litekeela AEtik zuzenean datorrenik.

⁵² Horrela Himalayako hizkuntzetan ere (cf. Genetti 2008). Bidebatez, AEk (aitzin-taniak bezala eta tani hizkuntza modernoan aurkara) ez bide zuen Adj kategoria askerik (cf. Post 2006). Markagarria da hierarkikoki adjektiboan artean hain gora den koloreen sailean guztiak kokatzea Dixonek (1977) adjektibo gabeko hizkuntzetan horien ordezkotza egiteko lau bidezat deskribatuetan (partizipioak, eratorriak, erlatiboak, maileguak).

robi to Mombasa'. Lingala *-úta* 'come from' > *útá, út'ó* 'since', 'from' (Heine & Kuteva 2002: 71).

(9b) COME TO > (2) CHANGE OF STATE

This grammaticalization includes processes leading to what tends to be described as resultative markers, for example in Fijian, Vangunu, and To'aba'ita (...) for example, To'aba'ita *mai* 'come' > *-mai*, ingressive/resultative marker. (...) Perhaps related to this grammaticalization is the development of Chinese *lai*, which throughout Chinese history was used as a verb meaning 'come'. In Early Mandarin (around the twelfth century) it developed uses of a perfect marker, its function being to relate "two time points, a point in the past and speech time", possibly being a marker of "currently relevant state" (...). Chinook Jargon *čákwá* or *čáku* 'come' is found before stative verbs (...) with the meaning 'become X', 'get to be X' (Heine & Kuteva 2002: 74-75).

**Edin* aditz bera dugu ablatiboak egiteko erabilia hainbat hizkuntzatan eta, itxura guztien arabera, euskaraz ere **di* aldaera galdu batetik *-ti* eta honen eratorriak garatu dituena.

Bestalde, hara zer dioskun Dimmendaal-ek (2011: 128-129):

- (9c) A widespread technique for deriving names of animals of Nilotic languages, for example, is by using attributive phrases describing their prototypical features (as with the word for 'rhino' in Anywa above) or activities. Such adjectives or related types of attributive nominal modifiers are frequently reinterpreted as nouns in these languages. This appears to be particularly common with words referring to animals. In Southern Nilotic, a prepositional element introducing such phrases. *Kip-*, is found, as in *kip-inkək* 'like a chicken' and the corresponding noun for 'chicken' *ing'kək*; the form *kip-sirich* means both 'rhino' and 'like a rhino' (the meaning of *sirich* is not known). What these processes show is that attributive phrases expressing qualities may develop into nouns expressing objects.

Hau ikusirik, nola ez burura etorri euskaraz hainbat animaliatan, hain zuzen, agertzen zaigun *-di* atzizkia? Nola ez bururatu *zaldi*, *ardi*, *ahardi* eta *idi*?⁵³ Teknikoki, azkenak badu "xehetasun" txiki baina markagarri bat bere forman: CVC-tik gainerakoak baino urutiago dela, alegia. Kontua erraz konpon liteke hor erreduplikazio bat ikusiaz, Borja Ariztimuñok inoiz iradoki bezala; cf. **dar* > *adar*, etab. formari dagokionez. Gogora, bestalde, hizkuntza askotan erreduplikazioa animalia izenak eratzeko aurkitzen dugula; gure hizkuntzatik atera gabe hori genuke *zezen* edo *zozo*-ren kasua, eta baita, seguruenik, *ahardi*-rena ere: < **nar* → **nanar* + *-di* > **anardi*, cf. **nin* > *ihin-tz*, **nol* > *ohol*, etab.

⁵³ Dimmendaal-en aipu akabuko azken lerroan datorren "attributive phrases expressing qualities > nouns expressing objects" prozesu orokorrago horretan sartzen bide da *ezi* 'Adj' [< **hez-di*; cf. *heztul*, *heze*] 'ADJ' > *ezi* 'Izen'.

Baina bada gehiago oraindik: Heinek eta Kutevak dioskutenez, zabal da aditz horren futuruzko gramatikalizazioa ere:

- (9d) COME TO > (3) FUTURE: Bambara *nà* ‘come’, remote future marker. (...) Swedish *komma* ‘come’ > *komma att*, auxiliary expressing unplanned future (...). Tamil *vaa* ‘come’, verb of motion > auxiliary marking intended future actions (...) Chinese *lái* ‘come’ > marker of intended future actions and of purpose clauses (...).

Hori bide da euskarazko forma arkaiko bitxi batzuen azalpena ere:

- (9e) Gar. B 48 *Gox gorric euri* DAIDI, *Arras gorric eguzqui* “Mañana colorada llubia hera [hará], Tarde colorada sol”.
RS 268 Mayacean berarra luce da eta sendo, eguitayaren orçac eba-gui LEYDI *ondo* “En mayo la hierba larga es y crecida, las mellas de la oz podrianla bien cortar”.
RS 510 Adisquide barriagayti zarra vcatu validi, edo len edo güero calta artu LEYDI “Si por el nueuo amigo el viejo se negasse, o antes o después tomaría daño”.⁵⁴

6.6.2. *-to*. Batez ere mendebalean gorde den *-to* ‘modu adberbioak’ (*ederto, laburto, ondo...*)⁵⁵ eratzeko atzizkiari aurrekoarekin erabili azterketa-bide bera erabiliaz, *-do* alomorfo zaharragoa eta **edon* aditza aterako litzaizkiguke. Lehendabizikoak ez du izartxoren beharrik, *ugerdo, ezkerdo, geldo* eta beste batzuetan baitugu oraindik. Aditzari dagokionez, *itxaron* (< **hitz-edon*) nahiz *idoki*-k (< **e-i-don-gi*) ‘TAKE’ sematik gertu zebilela dioskute; esanahi eta forma osatzeko, familia bereko *lo* eta *edo* ere gogotan hartzea komeni da.⁵⁶

- (10a) *edo*. Honelako juntagailuen (“coordinating interclausal”, zehatzago “disjunctive connectives”) jatorriez, Giacolone Ramat-ek eta Mauri-k ondoko iturri ezagunak ematen dizkigute, hainbat kizkuntzatako paraleloez horniturik: “(1) distal meaning ‘that, other’, (2) interrogative

⁵⁴ Zer erantsi asko da **din*-en lexikalizazioei eta, oro har, aitzin-familiako kideei dagokienez, are Mitxelena (1970) eta Ariztimuño (2012)-z geroz: cf. *agian, aldi, alegia, bai, egia, ei, eiki*, etab. (Lakarra prest.-b). Mitxelenaren (1970) *adin* < *har* + *din* deribazioak duen zenbait ondorioz ikus beherago 62. oh.

⁵⁵ Bere kronologiarentzat ohar bedi gaskoi maileguren bat ere (*polito*) oinarri hartzera iristen dela (baita *galanto* ere). Aldiz, Borja Ariztimuñok aipatu dizkidan ekialdeko *-ztatu* aditzek (*gorritzatu, ondorioztatu*, etab.) ez bide dute atzizki honetan beren jatorria eta bai *-(z)katu*-n, nahiz eta mendebalean *zorritzto* eta, itxuraz, antzeko *-zto* batzuk ere izan.

⁵⁶ Ez naiz luzatuko *-n* > *-ø* erorketaz aditz zahar zenbaitetan: *igo, igaro, idoro, jaramo*, etab. Esan gabe doa, nire hurbilketa oso ezberdina dela de Rijk (1995)-etik *-to* atzizkiaren jatorriari dagokionez (*ta* + *oro*). Aldiz, azken honek egoki dirudi *-toro*-rentzat; Ricardo Gómezek diostanez, berak nahiago du hor pleonasmu bat ikusi (*-to-ro*).

Bestalde, *-o jai*-n eta beste zenbaitetan, beharbada, *-do* ‘COMPLETIVE’ delakoaren alomorfo berriagoa genuke; hortik Trasken (1995) horiek adjektibotzat aurkeztu izana... “Trasken legeaz” (cf. *supra*) ohartu ez arren oraingoan.

particle, (3) free choice verbs, (4) dubitative particles ‘perhaps’, (5) negative particles, (6) denied conditional clause ‘if not’, ‘if it is not so’” (2011: 660).

Guri hirugarren sailekoak egokitzen zaizkigu: egileek latineko (*vel*) eta erromantzeko (fr. *soit*) kideak aipatzen dituzte —bigarrena bederen, laburbehar hutsez— eta beste hainbat erants bide dakizkieke. Euskaraz *edo/ala* bereizkuntzari, nolana ere, ez zaio arrotz egiten dagoeneko Varronek *vel/aut* bikotearentzat zekarrena: “*vel* conligatio quidem est disiunctiva, sed non [ex] earum rerum quae natura disiuncta sunt, in quibus *aut* coniunctione rectius utimur, ut “aut dies aut nox”, sed earum quae non sunt contra, e quibus quae eligatur nihil interest (...)” (*apud* Ernout-Meillet s.u.). Egileok dioskutenez, *uel uolō*-ren familiako dugu (nahiz forma-zailtasunen bat izan) eta hizkuntza italikoetan ere antzeko eraketak omen ditugu, erro ezberdinekin.

Euskaraz *nahiz... nahiz...* begi-bistako kidea dugu eta *bai* < **badadi*-tik badator dirudien bezala, *bai... bai...* egituran are kide hertsia goa (aditz jokatu) genuke. *Edo* aditz-ohi juntagailu bilakatuarentzat ez da ahaztekoa *OEH*-ko lekukotasuna: bertan dakusgunez “*edo... edo...*” hizkuntzaren historia nahiz geografia osoan erabili izan da (gehiago, seguruenik, lehen garaietan modernoagoetan baino), eta dagoeneko badira “*edo dela... edo (dela)...*” indartuak Leizarraga, bi Etxeberriak nahiz *Itsasoko Nabigationeko Liburua*-n.⁵⁷

Ikusi dugu **d-* > *l-* AEMrako gertatua zela; **lo(n)* erroari aurizkia ezarriaz **elo(n)* eta (askozaz beranduago) **ero(n)* genituzke. Utz dezagun hau gerorako eta esan dezagun orain badugula hurbileko forma bat, familia berekoa zalantzarik gabe: *iro-* < **e-i-ron* (cf. *izan* < **e-i-zan*, *irabazi* < **e-i-ra-baz-i*, etab.). Aditz hau gramatikalizatua genuen lehen testuetarako (ikus orain Padilla 2013) eta baita lehenago ere: Etxeberri Ziburukoak badu inoiz baina ez ondoko lapurtarrek. Hara zer dioskuten Heine & Kutevak aditz honetaz:

(10b) TAKE (‘to take’, ‘to seize’) > (3) COMPLETIVE: Dogon *jê* ‘take’, verb > *-jê*, aspect marker of completed actions (...). Nupe *(*l*)á ‘take’, verb > (*l*)á, completive focus marker (...) Compare also Gwari *lá*, PL *kú* ‘take’, verb > perfective aspect marker (...) Fa d’Ambu CP *ma* ‘take’, verb > resultative aspect marker (287-288).

Euskaraz esanahi hori ezeri badagokio *-ro* atzizkiari (*garbiro*, *handiro*, *luzaro...*) eta noizbait orokorra izan zen⁵⁸ *oro* partikulari dagokie. Bada, ohar bedi azken hau postklitiko izan dela; gauzak honela, azentu propio gabeko bisilaboa izan bada, bere deribazio errazena edo errazenetarik bederen

⁵⁷ Ez dut hemen astirik Torrens-ek agertzearen lan batean egin proposamenaren (lat. *et aut* > eusk. *edo*) begi-bistako arazoak zehazki erakusteko; ikus orobat 72. oh. *eta-z*.

⁵⁸ Cf. *RS 223 Ardi bat doean lecuti oro*, 245 *Guiçonoc oro buru balz*, *andra duztioe buru çuri*, 92 *Celangoa da Butroe oroc daquie*, 170 *Motel oroc yz nay*, 533 *Oroc dogu ardura bat*, *ta guztia taccoençat*, 198 *Iauxi din ezcurra oroen su egur*, 256 *Edoeyn bereçat ta Iaungoycoa oroençat*, 491 *Edozeyn berezat*, *Iaungoycoa oroenzat*.

*-ero(n) > -oro da, gorago ikusi dugun *-elo(n) aditzetik, hain zuzen. Proposamen honen alde dira beste hizkuntza batzuetako datuak; latinarenak, demagun, (10b)-en ikusi legez:

- (10c) *omnis*, -e: adjectif et pronom correspondant pour le sens au gr. $\pi\tilde{\alpha}\varsigma$, $\pi\tilde{\alpha}\sigma\alpha$, $\pi\tilde{\alpha}\nu$ ‘tout, toute; tous toutes’, le neutre *omne* traduit dans le langage philosophique le gr. $\tau\omicron \pi\tilde{\alpha}\nu$. Au singulier, *omnis* a le sens indéfini ‘toute espèce de’ (...) Du sens de ‘en general’, on est passé au sens de ‘dans l’ensemble’ (...) Aucun mot pareil ailleurs. Les mots signifiant ‘tout’ diffèrent d’une langue indo-européenne à l’autre (...) On pense naturellement à un dérivé de *ops* (Ernout-Meillet 1979: s.u.).
opus, -eris n.: travail, ouvrage, surtout au sens concret de ‘produit du travail, oeuvre’ (...) *opera*, -ae f.: activité du travailleur (Ernout-Meillet 1979: s.u.).

Euskaraz ere gauzak horrelatsu izan bide ziren: x-ero(n) [x oro] ‘*x egindako’ > ‘*x guztiz egindako’ > ‘*x guztia, -z’.⁵⁹

Bestalde, ‘TAKE’ (eta ‘TO WORK’) ez dira, noski, ‘completive’-en sorreran soilik, baina baita ‘causative’-en ohiko jatorriak ere; ikus (10c):

- (10d) TAKE (‘to take’, ‘to seize’) > CAUSATIVE
Chinese *BA* ‘to take’ > *BA*, causative marker (Alain Peyraube, personal communication). Twi **de* ‘take’ > *de* transitivizer, causative marker (...) Nupe *la* ‘take’, verb > transitivizer, causative marker (...) Lord (...) notes that the verb for ‘take’ in the Amerindian language Chikasaw can mark instruments and has the effect of making intransitive motion verbs transitive (or causative) (Heine & Kuteva 2002: 286).

Euskaraz *-e-lan-i aditzik edo horrelako ezeren arrastorik gorde ez arren, ez dugu horren beharrik -ra- ezagunera iristeko: -r- hori -l- zaharrago batetik datorrela gutxi ukatuko bide du eta, bokalari lotuaz, komeni da gogoratzea Erdi Aroaz geroztik hiru -a- ezberdin ditugula eratorpen edo konposizioan jatorriari dagokionez: $a_1, a_2, a_3 < *a, *e$ eta $*o$, hurrenez hurren (cf. *amatasun*, *luzatu*, *basalore*). Ez da, beraz, oztoporik -ra- ere **lo-* bateatik etor dadin **la* edo **le* batez gainera, hots, goragoko ahapaldietan aurkitu dugun *-e-lo(n) ‘take’ horretatik, hain zuzen.

Lehenago -ra- hori aditz-izenetan ezkererago ager litekeen **-da-* batekin lotzen nuelarik, oraingo berreraiketa hau aurrerapauso markagarria iruditzen zait. Izan ere, akats larria zen nire ideia hura, nahiz tipologiari nahiz gramatikalizazio-katei dagokienez, **dar* (> *da-*) ‘SIT’ (inperfektiboaren jatorria) eta

⁵⁹ Bilakabide honen adibide da euskaraz *bero*: **egu* + *ero* ‘guztiz’ → ‘(eguzkia) guztiz gora egina’ > **egwero* > **ebero* eta aferesiarekin (cf. Lakarra 2013e). **go* ‘TO PASS’ [cf. 62. oh. ere] + *-ero*-etik abiatuaz ere *gero* genuke. Gaur egun *lan* izen bat dugu, soilik, erro horrekin loturirik ez balu bezala, baina bistakoa da noizbait ez zela horrela, ikusi berri dugun lat. *opus* : *omnis*-ek dioskun moduan.

ra- ‘TAKE’ (kausatiboarena) erabat ezberdinak baitira mundu osoko hizkuntzetan, aurrizkiok euskara historikoan izan lezaketen forma hurbiltasuna gorabehera.⁶⁰

6.6.3. ‘TO SAY’. Afrika eta enparatuko hizkuntzetan hain hedatua den aditz hau gehienik “ekuatibo” gisa (cf. 11a) erabili ohi da, baina euskaraz ez dirudi horrekin lot litekeen ezer denik.

(11a) SAY > (6) QUOTATIVE

Nama *mí* ‘say’, ‘speak’, *ti mi* (lit.: ‘thus speak’) > *ti(mi)*, direct quotation marker (...). Twi *se* ‘say’ verb > quotative marker (...). (...) Thai *wáa* ‘say’ > quotative complementizer (at the end of nonfinal clauses containing a verb of utterance or of cognition) (...). Khmer *thaa* ‘say’ > quotative complementizer (...). Vai *ro* ‘say’, ‘suppose’, ‘think’, *áro* ‘he says’ > marker introducing quoted speech (Heine & Kuteva 2002: 267-268).

Alabaina, ‘TO SAY’-k badu beste gramatikalizaziorik, esaterako ‘SIMILE’ deritzona (cf. 11b):

(11b) SAY > (7) SIMILE

Koranko *kó* ‘say’, verb > *iko* (‘you say’) ‘like’, ‘as if’, conjunction (...). Vai *ro* ‘say’, ‘suppose’, ‘think’, verb > *i:ro*, *iro* (i 2:SG + *ro* ‘say’) ‘as’, ‘as if’, ‘like’, preposition (...). Tamil *en* ‘say’ ‘say, think’, verb of utterance > *ena* (‘say’ in the infinitive) ‘like’ (...). English **say* > West African PE *sey* ‘resemble’, complementizer (...) (Heine & Kuteva 2002: 268-269).

Aurreko TAKE-ekin bezala, atzizkiak (-so) gehi partikula (*oso*) dugu ikusi ditugun -n > \emptyset eta -o/-a txandaketak gogoan hartuaz.⁶¹

(11c) **oso** (gral. [...]) Documentado en todas las épocas y dialectos desde Dechepare (...)

I (Adj.). **I**. Completo, entero; perfecto; total, pleno [zazpi adiera adjektibo bezala]

⁶⁰ “No investigo aquí el posible origen de -ra- como un marcador causativo (podría provenir de un adlativo o destinativo; cf. Song 1996),” dio Aldaik (2012). Alabaina, litekeen munduren batean (edo askotan) zilegi dena, ez dator oso ongi euskarazko datu ezagunekin: -ra atzizki bizia da “deklinabidean” eta aurrizki aspaldi fosildua aditzean. Cf. iruzkin asko behar ez duen “Change of an affix from suffix to prefix in an SOV language. This change does not seem attested and will not be discussed” (Jacques 2013: 191).

Carol Lordek (1993) hainbat hizkuntzatan markatuari jarraituaz, Lakarra (2008b)-n erakutsi nuen euskaraz ere *har* ‘take’ eta *har-* ‘3.grad.DEM’-aren artean den lotura.

⁶¹ *Esan* : *erasan* : *jasan* hirukotea dugun moduan *eraso* : *jaso* ere badugu, noski, baita **edosa* < **e-da-so*, -o- aditzen ohiko metatesiarekin: cf. *urgatzi* < **edaragotzi*, *jo(h)an* < **edanon*, etab.

II (Adv.) (H (V, G)), *Tr.* Documentado en textos meridionales desde mediados del s. XVIII. Al Norte sólo se encuentra en Goyhetche, *Xikito*, Iratzeder, Mirande, Casenave y Xalbador (*OEH*, s.u.)

Hasteko, *-so* atzizkia usuenik ‘familia izenak’ egiteko (urrunekoak batez ere; ikus 76 oharra) erabili atzizkia dugu: *amaso*, *aitaso*, *alabaso*... frantse-seko *grand père*, *grande mère* eta holakoen antzera. Hauetan antzekotasuna edo konparazioa —ez berdintasunekoa (cf. *adin* < **har-din*)⁶² baizik eta nagusitasunekoa— izan da une batetik aurrera; horrelatsu izan bide da *guraso*, *atso*, *otso* eta, hau ilunago izan arren, *baso*-n eta *beso*-n ere: < **(a)gure-atso*, **hartz-so*, **hortz-so*, **baR-so*, **bi-esku-so* (cf. Lakarra 2013d, IE paraleloekin). Haatik, zentzurik zaharrena (< **da-so* ‘esanaz bezala’, *da-* > *la-* preposizio eta aurrizki ezagunarekin) gordetzen da *laso* partikulan:

(11d) *RS* 88 OLASO, *guichi bazuc* y LASO “Olaso, pocos son como tú”.

RS 344 *Hurrûgo ynsaurra burua* LASO, *jarrequin ez equida erricoa* LASO “El nogal de lexos como la cabeça, más no la allé como la de la patria”.

RS 413 *Guiçon gazteen gogoa ecosaria* LASOA “El pensamiento del hombre joven, del tamaño del aua”.

Bide batez, *laso*-ren etimologia berri honek —eta baita *bidaso* ‘ibai txiki’-renak [hots, ‘*bide antzeko, gisako’, cf. Lakarra (2013d)]—, argi erakusten du oinarri ahulak zituela *FHV*n, txistukarien atalaren akaburantz (296-297), nonbait sartu behar eta, aipatzen duen ustezko *-k-* > *-s-* aldaketa batek:

14.10. No es infrecuente la permutación oclusiva velar / sibilante (o chicheante) la oclusiva parece más antigua por regla general. Mejor que un fenómeno independiente se tratará de un aspecto de la palatalización de carácter expresivo estudiada en 10.6: la palatal ha podido ser suplantada después por *z* o *s* considerados como “primitivos” (...) (b) A diferencia de la inicial donde la asibilación, de origen generalmente expresivo al parecer, es abundante, apenas encontramos en posición interior más que a.-nav.merid. y ronc. *bekain* (...) donde la razón no es exclusivamente fonética (29).

[(29) Véase ahora el artículo fundamental de R. Lafon, “L’expression de la comparaison en basque”, *BSL* 53 (1957-1958), 234 ss. En *RS* hay *laso* en vez de *lako* (= guip. etc. *bezalako* ‘que es como aquello’). La sospecha de que se trate de una alteración caprichosa para conseguir la rima con *Olaso* debe ser desechada, pues *lasoko* sigue vivo con ese valor en las cercanías de Munguía (Azkue, *Morf.* 129 s.).]⁶³

⁶² Mitxelenak ere ikusi zuen etimologia honek ezinezko egiten zuela iberikoarekiko konparaketa; zehatzago (cf. Lakarra 2013c), *har-din* > **hah-din* > **ahdin* > *adin*. AEM eta akitaniera bitartekoa da, baldin eta *otso*-rekin (**hor-tz-so* > **hohtso* > **ohtso* > *otso*) berdindu behar baldin bada < OXSO > (ikus, orobat, Lakarra 2013d /h/-aren 5. jatorriaz. Hor erakusten denez *-aga* (> *-ak*) **har* + *-ga* baten gramatikalizaziotik dator, *-ago*-rentzat (< **har* + *-go* ‘TO PASS’, cf. Lord 1993) lehenagotik (Lakarra 2008b) ezagutu bilakabide berarekin.

⁶³ *OEH*n zera dioskute *RS* ondoko Bko egoeraz: “*laso* “(V arc. Ap. A; Lar Sup, H), *lasio* (V ap. A (que cita el msOch); Izt). Como, *laso*, *legez*, *bezala* Lar Sup. “Comme. Cette conjonction est usuelle dans le dialecte biscayen” H v. 2”.

Bada, oraindik, konparazioaren gailurrera edo hurbil iritsia den partikula bat ere: *oso*; hau fonologikoki *oro*-tik hurbil da baina ez da zer pentsatu jatorri komun batez, ezta batzuek hain zaletuak diren “errotazismo”-ren baten bidez ere: ez da horrelakorik euskaraz eta ustezko adibide honi *erran*, *irla* edo *jarraitu* zein beste batzuk gehitzeak ez ditu gauzak hobetzen. Interesgarriago dirudi, aldiz, *oso* eta *oro*-k duten zenbait paralelismo morfosintaktikori kasu egiteak: hura bezala, *oso* ere postklitikoia izan da berandu arte eta nekez joan zitekeen LAGUN edo beste ezeren aurretik harako Veleiako “artistak” jakin ez arren:⁶⁴ horrenbestez, gorago *oro* < *-ero(n) proposatu badugu, oraingoan *oso* < *-eso (TO SAY) proposatzea ia dohainik ateratzen zaigula deritzot.⁶⁵

6.6.4. *Kopula Lokatiboa*

Gorago (§ 6.5) ikusi dugunez, **dar* ‘SIT’ > *da* bilakatu zen, burutugabeko perifrasi bezala lehen, aditz jokatuaren aspektu burutugabe gero eta orainaldiko marka gisa, azkenik. Gramatikalizazio-kate honen kideak ugari dira munduko hizkuntzetan baina ez dira gutxi jatorri horretatik bertatik sortu diren beste sare batzuk, *da* copula bera ezer baino lehen. “SIT > (2) COPULA” dator Heine & Kutevaren lexikoian (lat. *sedere* > gazt. *ser* eta beste hainbat adibiderek), CONTINUOUS eta HABITUAL direlarik ondokoak zerrendan; bestalde, COPULA, LOCATIVE > (2) COPULA EQUATIVE da; hara Kenya Pidgin Swahili deritzon:

Juma *iko* Nairobi → Juma *iko* mwalimu
 ‘Juma *be:at* Nairobi’ → ‘Juma *is* a teacher’

Euskarazko ordainak *ama etxean da* eta *ama zuhurra da* lirateke, hurrenez hurren.

Hara zer zioskun honetaz Carol Lordek duela hogeit urte:

Patterns in present-day Benue-Kwa languages suggest *two general paths for grammaticalization of locative verbs. One direction is from verb to marker of incompleteness aspect. Another is from verb to preposition, pro-*

⁶⁴ OEHn Pepe Artola, Pello Errota eta Arrese Beitiarenak dira *Oso umore onez pasa zuen eguna, Ikasi arte etzegon ori / oso deskansu onian* eta horien antzekoen lehen lekutasunak (OSO + ADJ + I) eta horiek hurbilenak izan arren, ez dut aurkitzen MARCUS OSO LAGUN edo OSO POLITA-ren kiderik. Horrezaz gainerakoak badira, noski —faltsukeriaren n-garren salaketa-bide berean, alegia—, *polit*-en jatorri eta kronologiarekikoak.

⁶⁵ Heinek eta Kutevak erakutsi bezala, ‘SAY’-ren gramatikalizazioa are urutiagoa joan liteke: “SAY > (8) SUBORDINATOR: In more advanced stages of grammaticalization, SAY-verbs may develop into markers of purpose, cause, and temporal adverbial clauses” (2002: 269). Ikus orain Chapell (2008) hizkuntza sinitikoetan *verba dicendi* direlakoetarik sortu konplementatzaileen gramatikalizazioen gorabeherez eta Hsieh (2012) gai bertsuaz Taiwango hizkuntza austronesioetan; orobat Klamer (2000). Kasu batean nahiz bestean aski urruti dirudite Heine & Kuteva (2002)-ko datuetarik.

ceding in some cases to prefix and to zero. Along the latter path, the preposition takes place noun objects, and may allow others such as time and manner objects as well. Depending on the semantic class of the arguments present, a locative verb often allows a possession reading. In one instance, these developments appear to have cooperated with other factors to extend the preposition's use to the marking of non-topic nouns (1993: 29; etzana neurea. Cf. Aikhenvald 2006).

Traskek dagoeneko 1977an aditz forma jokatuetakoa horrela analizatu ondoren, *da*-ren baliorik zaharrena ASP BURUTUGABEA izan zela eta ez ORAINALDIA, erakutsi nuen aurreko lanetan (Lakarra 2006b, 2008b), gure hizkuntzan ere gramatikalizazio mota honek gainerako hainbat hizkuntzatako jatorri, bide eta urrats berak edo bertsuak izan dituelarik.⁶⁶

Lordek aipatzen duen bigarren gramatikalizazio-bideari dagokionez, IS-an gertatutakoari alegia, —“COPULA LOCATIVE > (4) LOCATIVE” (Heine & Kuteva 2002: s.u.)—, euskaraz *da* hartatik hondar aski aurkitzen ahal da IS-ren eskubitara: *-ta* leku kasuetako mugagabeko oinarritzko forma modernoa (cf. mendi-*ta*-n/ko/rik vs. etxe-*ø*-n, urte-*ø*-ko, etab.), bide da horien artean zaharrena, dagoeneko Trasken legea beteaz alomorfo berriagoarekin ahoskabe horretan ikus genezakeenez; *-t* ekialdeko *rantz/rontz/runtz*-en kidea ere lokatibo marken multzoan sartzen da, noski, *-V* beste hainbat atzizkitan bezala garai are modernoagoetan galdu ondoren; *-a* leku-izen propioekin, erakusle eta bizidunetan (*Zarautza, hona, amagana*) ez da Trasken legearen hirugarren alomorfoa baizik (*-øV*, cf. *-e* pl.).

Ez dira hor amaitzen kate horren begiak eta honekin lotu behar da zailtzarrik gabe, 1.p.erg./dat. *-t/da* ere,⁶⁷ nahiz *-ra* (*mendira*) eta *-la* (*mendialat*) eta jatorri bereko dira segurki, modaletako *-la* (*bezala, honela*, etab.) zein aditzetako bi *-la* ezagunak: *dela* (SUBJ) zaharra, nahiz *datorrela* (KONPL). Egia esan, IS-ko lokatibo-kate hau ez zen eskubitara hasi: *labur, labar, labain* (< **laban-*) eta beste izen eta adjektibo batzutan aurkitzen dugun *lahorrek* ezin baitu beste funtzio eta jatorririk izan. Analisi morfologiko honen alde —eta, ondorioz, baita AURRIZKI > ATZIZKI aldaketaren alde ere— badira bi argudio, morfologikoa bata eta fonologikoa bestea, laburki aipatzea merezi dutenak: erro monosilabikoaren teoriak CVCVC egiturak ondare zaharrean CV-CVC azaltzen ditu eta, horren berme, zenbait CVC (*sa-bel, samin*, etab.) bestelako kokaguneetan (*har-bel, bel-tz, *bin-i* [> *mih*], **bortz-*

⁶⁶ Hor bertan ohartzen denez, *da-* ez dugu soilik forma jokatueta baizik eta jokatugabeetan: *e-zarr-i* vs. *jazarri* (< **e-da-zarr-i*), *ilki* (< **e-dul-ki*) : *jaulki* (**e-da-dul-ki*), etab. Hauen (eta **da-ra-* konbinaketan [*urgazi, ardan-, jarrain*, etab.]) azterketa ez da aurreratuegia baina ezinbestean lotu behar zaio Lord, Aikhenvald eta gainerakoek aditz lokatiboaren gramatikalizazioaz erakutsitakoari.

⁶⁷ Ohar bedi “LOCATIVE > AGENT” bilakabidea dela lehena Heine & Kutevaren lexikoian. Honek balio bide du 2. pertsonako *-ga/-a-*rentzat ere bere lokatibo izaera zaharra begi-bistakoa baitugu toponimian bederen. Ez dut aukerarik gertakari hauen ondorio guztiak hemen ateratzeko, zergatik **-da* ‘1.p.’ eta **-ga* ‘2.p.’ diren, esaterako.

bin [> *ozpin*]) aurkitzen ditugu. Ez, aldiz, *la-* hori: eskubian (beranduago, historikoki) aurkitzen direnez landa, ez dugu **la* errorik (bere egitura ez da iristen beharrezko CVC-ra ere) eta hor, beraz, flexio-marka genuen eta ez erro: aurrizki lokatiboa izan genuen atzizki baino lehen.

Halaber, aurreko *l-* (> *-r-*) horiek beste alde batetik ere ematen dute al-daketa morfosintaktiko larriaren berri; izan ere, *d > l* aldaketak testuinguru jakina du hizkuntzaren historian (hitz hasiera, ez besterik) eta, horrenbestez, azken batean copulatik eta **dar-*etik datozen lokatibook soilik kokagune horretan pairatu ahal izan zuten horrelakorik (AEM baino lehen, beraz),⁶⁸ preposizio bezala, inolaz ere ez atzizki edo postposizio gisa.⁶⁹

Bestalde, koordinazio juntagailua (*eta*) dela eta hemen ere gramatikalizazio-ikerketek eskeintzen digute zer bila.⁷⁰

1. Bide bat, beharbada ezagunena, DEMONSTRATIVE > CONJUNCTION litzateke (cf. Heine & Kuteva 2002); beraz, euskarazko *-heta* (ikus honetaz Julen Manterolaren lanak) izan ahalko litzateke *eta*-ren jatorria noski. Alabaina, esan gabe doa gorago joaz *heta* horren jatorria ere beharko litzateke aztertu (CVCV dugu!), aditza izan edo ez eta *-ta* hori nekez berezi ahalko genuke lokatibo kopulatik. Bestalde, zehatzago begiratuaz gauzak “[connectives] are frequently formed from a pronominal demonstrative and some other element (e.g., an adverb or adposition) that indicates the semantic relationship between the conjoined propositions” (Diessel *apud* Heine & Kuteva, s.u.).
2. Bada beste bide bat gutxienez (Heine & Kuteva 2002: *ib.*): hots, COPULA > (3) CONSECUTIVE ere. Vai hizkuntzan adibidez “*á mu* ‘it was’ > *ámu*, *ámo* ‘and’, ‘then’, continuity marker in a narrative discourse”; orobat kxoeraz “*na* ‘be’ + *ko* subordination marker (lit.: ‘being thus’) > *nákò* ‘and’, conjunction” (*ib.*).⁷¹

Bigarren honetan (**da > eta*) *e-* hori azaldu beharko litzateke eta baita zergatik *-D-* > *-T-*; bada, bi kontuak izan litezke «dohainik», batez ere biga-

⁶⁸ Gogora Mitxelenak *d-* bere sisteman soilik orain aldiko aditzentzat (?), mailegu eta fonosinbolismoei egokitu ziela, ez ondare zaharreko izen, adjektibo, partikula eta gainerakoei, are gutxiago bere morfologian tokirik ez zuten preposizioei eta aurrizkiei (cf. *la-bur*).

⁶⁹ Hau da de Rijken “Nunc vasconice” famatuko arazo bat (cf. Lakarra 2006b), aldaketa morfologikoaren zuzenbidea (ASP > DENB ala DENB > ASP) eta dagoeneko Lafonek (1944) aipatu XVI. mendeko hainbat lekukotasunen balio zehatzaz landa.

⁷⁰ Nolanahi ere, ez ahantz euskara noizbait WITH-hizkuntza izan zela baieztatzeko froga ugari dela eta, horrenbestez, baita ez dela betidanik komunztadura aberatseko hizkuntza izan esateko arrazoiak ere (cf. § 6.6.2). Besterik da noiz sortu zen *eta* eta noiz bilakatu zen AND-hizkuntza; nolanahi ere, arkaismo urri gisa baino ez bada ere aurreko egoeraren aztarnak gorde dira (cf. Lakarra 1983, 2008c). Hots, WITH nahiz *-gaz* nahiz *-kin*-en bitartez gauzatu da, EBZ ondoren eta baita lehen banaketa dialektalak eta gero ere. Horrenbestez (cf. 4c), komunztaduren datak aski berankorrek izan beharko lukete; alabaina, eta biak EBZ-koak balira?

⁷¹ Azken oharretan beharbada gramatikalizazio hau COPULA > FOCUS-ekin ere lotua egon litekeela dioskute.

rrena, dagoeneko hainbatetan kausitu dugun Trasken legearen arabera. *e-* horri dagokionez —kxoerako subordinazio markaren parekoa—, ez dakigu ezer garbirik baina aditz zahar guztiek hartzen zuten aurrizki misteriotsua izan liteke, genitibo zaharraz gainera; batera zein bestera (hauek ere kate beraren bi adabegi ez badira) ez litzateke harritzekoa copularekin bildu eta koordinazio markara iristea.⁷²

7. Ondorioak

1. Sailkapen hutsa (arbitrario eta oinarrigabea, gainera) helburu duten erkaketak oraindik bizi-bizi dirauten arren,⁷³ euskalariok dagoeneko behar genuke ohartu hori ez dela tradizio diakroniko garatuetako helburu nagusia (cf. Lakarra 2013b). Beste edozein zientzian bezala, hemen ere azalpena, —hizkuntzaren historiaren garai ezberdinetako egituraren eta honen aldaketen azalpena, alegia—, dugu helburu, sailkapenak eta bestelakoak (sailkatzailek amorratuenean ikusi ere nahi ez dituzten aitzin-hizkuntzen berreraiketak, batez ere) horretarako bide edo abiapuntu garrantzitsu direlarik.

2. Teoria linguistikoaren garapenak hizkuntzaren historiaren analisisian eta horren historiaurrearen berreraiketaren duen erabateko garrantzia aldarrikatu nahi izan dut lan honetan. Izatez, gogoeta hau ez da inongo ideia iraultzaile, ezta berrikeria nimen ere: usu aipatu izan dudana Mary Haasek (1969) beti eskura ez diren lanabes gehiketaz landa (Schmidt 1992) —familia linguistiko bereko ahaide edo *ahaideak, mailegu zaharr(ago) haboro—, azalpen berri egokiagoak, funtsean aintzindarien lanabes (lekukotasun) bertsuekin garatuko badira, teoria berri sakonagoen laguntza izan beharko. Egia da Mitxelenak Schuchardt, Gavel, Uhlenbeck, Lafon, Martinet, Tovar eta enparatuek (ondoko hainbat tarteko) baino hizkera eta lekukotasun haboro eta filologia askozaz finagoz apainduak erabili zituela, baina bere erabateko nagusigoa beste nonbait zetzan: fonologia diakroniko berriaz eta berreraiketaren oinarriez zuen —(1963-n laburtu)— ezagutza (eta begirune) paregabea, alegia.

3. Forma Kanonikoaren azterketak eta Tipologia Holistiko Diakronikoaren erabilerak A Eren berreraiketa sakonagoari eta euskararen historiaurrearen ezagutza aberatsagoari tradizio diakroniko asko eta oso ezberdinetan landu

⁷² *Edo* beste juntagailuak daraman *e-* ezin erabil liteke hirugarren jatorri edo paralelismo legez § 6.6.2 (10a)-n **edo(n)* aditzetik sortua dela proposatu ondoren. Bidenabar, ez dut uste lat. *et* > eusk. *eta* “euskalari guztiek” sinisten dutenik Torrens-ek (argitaratzean) dioen bezala eta esango nuke, gainera, sinismen falta hori aspaldikoa eta oinarritua dela. Bego hau (eta 57 oharreko *edo*-rekikoak) hurrengo baterako.

⁷³ Egia hori hurbilago bide da, zorionez, “euskararen inguruan” hori ezen ez “euskalarien artean” edo antzeko zerbait; izan ere, ez dut ikusten zergatik talde horretakotzat jo behar diren Morvan edo Forni jaunak, esaterako.

eta findutako hobekuntza-bide ugari eta oinarri sendoak dakarzkiete; hori erakutsi nahi izan dut aurreko bi hamarkadetako hainbat lanetan (§§ 2-3).

4. Filologia, jakina, ez da baztertua ez baztergarri; areago dena, Meillet (1925) zioen legez, filologiarik hoberena baino ezin erabil liteke teoria linguistiko garatuenarekin. Lehendik ere, bagenekien kronologia ezinbesteko eta are egiteko nagusi genuela “konparatistarentzat” (= berreraikitzailearentzat). Orain, akitanierazko beti ilunetarik X-XI. mendeko lehen lekukotasunen arteko osin beltza argitzeko, bertan gertatu hainbat aldaketa (*-n- > -h- eta honi lotuak, konposaketa-eratorpeneko lehen osagaiaren amaierakoa...) beren artean lotu beharra eta are kronologia erlatibo horiei datu absoluturen bat (berriro mailegaketaren edo gaskoiaren lekukotasunen bitartez joaz) izan genezake. Batera zein bestera jo, euskararen diakroniak baduke aitzinamendurik, inguruko hizkuntzen historiaren azterketa tradizioak —ez halabeharrez, noski— gurearen aldean aurreratua baitira.⁷⁴

5. Kronologia eta periodizazioari dagokio Euskara Batu Zaharraren gaia ere: Mitxelenak 1981ean aldarrikatu zuen zuhurki eraikuntza horren premia eta ezin esan euskal dialektologia diakronikoan izandako berrikuntza larri horren ondorioak berreraiketaren eta historiaurrearen ikerketaren behar bezala ustiatu direnik dagoeneko. Guk hemen (cf. Lakarra 2012a) metodoari buruzko gogoeta soil batzuk ekarri nahi izan ditugu:

- a) EBZ ez da linguistikoki behar bezala definitua eta bereizia Aitzineuskara Modernoarekiko —hots, tartean gauzatu berrikuntzen bitartez— eta eszenario geografiko eta historikoaren gaia historialarien eskutan utzi aurretik hizkuntzalariok horretarako geure-geureak ditugun egiteko batzuk markatu eta urrats zenbait eman nahi izan dut.
- b) EBZren zatiketa ez zen gertatu, segurki, zortzi (Bonaparte), sei (Zuazo) edo hamabi (Mitxelena) adarretan, behin betiko adarkatze bakarraz. Adarkatze bikoitza da —nonahi berarekin dakartzan hainbat arazo ezagun eta korapilatsu gorabehera— familia garatu guztietan (indoeuroparrean, semitikoan, uralikoan, austronesioan, kartvelikoan, bantuan...) zatikatze mota ohiko eta emankorra eta hori euskal dialektologia diakronikoan ezartzeak ikuspegi egiantz urrikoak ezabatu eta hurbilketa historiko-filologiko aberatsagoko bidean jarriko gintuzke.

⁷⁴ Arrasateko Erreketaren testua B ipar-mendebalekoa izanik RS-rekin erkatzea dugu egingarrien, noski. Batean eta bestean diren *ezan* eta *egin* laguntzaileen formak eta baita aditz enbor eta partizipioak perifrasi irrealetan ikusmiratzea bururatu zait: AErr-k bere tamaina labur baina esanguratsuan % 100 du bietan eta RS-ek, aldiz, % 50 (*lo egin* eta horrelakoak saihestuaz) eta 2/3 edo, hurrenez hurren. Nabarmena iruditzen zait AErr-aren lehentasuna (1448ko gertakarietarik oso hurbilekoa, seguruenik) —are Xekin Y koordinazio zaharra edo TOGEN-en bat aipatu gabe ere—, nahiz RS-ren hizkera argitalpen data baino hainbat hamarkada (beharbada mende bat ere) zaharrago den, ezagun denez (ikus Lakarra 1996). Ikus orain Zuloagaren lana 1603ko armarrri batez zeinetan RS-eko 2 errefrau ezagun eta Darmstadtoko alean ez bestetan agertzen ez zen enparatuko bat eransten den.

